



Europako Kultur Hiribururako hautagai

Zer dute eskaintzeko Donostiak eta Iruñeak?

- **Net Hurbil: Ekuadorko Yasuni** Nazioarteko diruari esker petrolioak ez du basoa itoko
- **Eduardo Torry** Identitate euskal-argentinarrak
- **Lan-istripuak** Eguneroko arriskuak obreroen ahotik
- **Ugutx Robles-Arangiz** Kontalariaren bizitza aberatsa

Eskuratu *Zumetak* ARGI Arentzat egindako lan-grafiko originala

 **argia**



EZAUGARRIAK

- Edizio limitatua
- Jose Luis Zumetak eskuz sinatutakoa
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 50x40 cm
- ARGIAko harpideek izango dute lehentasuna
- 160 €

ESKAERAK



943 37 15 45



gunea@argia.com



www.argia.com/denda

Zumetak



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortza.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



• **NON ZER** •

2010eko irailaren 5a, 2.242. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Gurutze Beitia:** «Madrilen Paco Martínez Soria bezala sentitzen naiz». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Lan-ezbeharrak.** Arrisku eta istripuak langileek kontatuta. MIKEL GARCIA / 5

Pertsonaia

- **Ugutx Robles-Arangiz:** «Euskaraz esaten den guztia ez da euskara». SUSTRAI COLINA / 11

Gaiak

- **Eduardo Torry, argentinarraren politologoa:** «Euskal etxeetan gehiegizko toki du folkloreak». GORKA BEREZARTUA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Kontatuko dutena. ANA URKIZA / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Uigurrak berez txinatarrak?** PAKO SUDUPE / 20
- **Txandan** Kafe-etxeak. JUAN RAMON MAKUSO / 20
- **Pacha mama haserre dago.** IÑAKI ZUBELDIA / 21
- **Hiruko txikian** Ezkutaekin. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertsot berriak** Boisetik jarriak. XABIER PAYA / 22

Erdiko kaiera

- **Kultur Hiriburua.** Europaren doinuarekin zein hirik dantzatuko. GORKA BEREZARTUA / 23
 - Donostia 2016ari begira Donostia 2010etik. MIKEL ITURRIA / 24
 - Iruñea 2016. Hautagaitza berde hitsa. PATXI LARRION / 26
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** GORKA BEREZARTUA / 32
- **Abarrak** GORKA BEREZARTUA / 33
- **Ihesi Azkarate-Lastur (Gipuzkoa).** Sakabiren oinen arrastoan. IÑIGO ARANBARRI / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Alicia Perez, itzulpengintza automatikoan aditua:** «Kostuak jaisten saiatu behar dugu, itzultzaileentzat erremintak sortuz». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 41
- **Krisiaren "doikuntzak".** Udazkenean, erreforma antisozial gehiago. DANIEL UDALAITZ / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Yasuni ITT izan da iraunkortasunaren abuztuko albisteak. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Lanean umorea=umorea lanean.** IÑAKI MURUA / 50

“Madrilen Paco Martínez Soria bezala sentitzen naiz”

Gurutze Beitia | “Guru”

Txiste onak grazia guztia galtzen du
esplikatzuz gero,
baina txiste kontalariak?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona



Sortzez denak gara euskaldunak?

Bilbainoa ezin daiteke edonor izan, baina gastronomikoki denak sortzen gara euskaldun. Konturatu zara maitasunetik hiletetara dena egiten dugula mahai bueltan?

Txisteak kontatzen egin zinela ezagun ohartu naiz ni. Ez da oso glamurosoa aktore batentzat...

Ez dago hau ulertuko duenik! Orain “hara, *Vaya Semanita!*-koa!” edo “oso ahots polita daukazu, animo Almudena!” bezalakoak esaten dizkirate. Ez zaizu glamurosoa iruditzen besteen loreak jasotzea?

Telebistan sasia baizik ez dagoela iruditzen zait niri...

Bagara bil! Ez dut ulertzen egungo telebistak nola dibertitu dezakeen jendea. Mass-medien munduak Erroma klasikora bueltan ekarri gaitu. Ogia eta zirkoa ematen dizkigute eta gu pozik.

Eta zer da *Aspaldiko* zuretzat, ogia ala zirkoa?

Pertsonaiarik gabe agertzen naizen toki bakarrenetakoa. Ez esan zu ere gobernu zahar eta berriarekin programan agertu naizelako gauza arraroak pentsatzen hasi zarenik! Saiatzten naiz gaiak umorez lantzen, baina zaina puzten didatenean...

Madrilen lan egiteak zaina ala egoa puzten dizu?

Sekulako kultur eskaintza daukate, baina ez dago itsasorik, sudurra odoletan hasten

zait... Madrilen Paco Martínez Soria bezala sentitzen naiz!

Zure buruari barre egiten diozun bitartean...

Zergatik ez diot egingo nire buruari barre kiloak soberan badituz? Albistegiekin zainak mozteko gogoia ematen didate eta umorerik ez banu medikatu beharko nuke. Horregatik, egunero behar dut nire umore dosia.

Umoreaz galdetu eta kiloak erantzun... Ez zara zu ere itxuraren matrakarekin hasiko, ezta?

Irudiarekin eta adinarekin obsesionatuta gaude eta ematen du kiloak eta zimurrak bekatuak direla. Ez dut ulertzen aktore batek aurpegian *botox*-a injektatzea. Zer transmititu behar du aurpegirik mugitu ezin duen aktoreak?

Azaleko profesionaltasuna, agian?

Asko kosta zaigu jendeari begirako ofizioa sinesgarri bihurtzea. Egun, jendeak lanbide serioztat dauka gurea, baina tamalez, beste gauza bat da aktoreak jende serioztat izatea.

Badakizu, zinea, antzerkia, publizitatea, telebista, irratia, txiste kontaketa, eta monologoak ginez gero...

Nik antzerkiko piztiatzat daukat nire burua, baina bizi nahi baduzu... Lanbide hau horrelakoa da eta horrelaxe maitatu behar duzu. Ez naiz Bardem, ez naiz Verdú, Beitia naiz, baina nik ere interpretatzen hil nahi nuke. Zuk ikusi, hori bedekapena ala kondena den. ■



• ASTERO GAIA •

Lan-ezbeharrak

Arrisku eta istripuak langileek kontatuta

Lan sektore arriskutsuenetan jazo ohi diren ezbehar ohikoenak kontatu dizkigute langileek eurek. Eguneroko jardunean dituzten baldintzak eta jokamoldeak ezagutu nahi izan ditugu, garrantzitsuenari erantzuna bilatzeko: nola saihestu istripuak?

Testua eta argazkiak:

MIKEL GARCIA

MIKEL TELLERIA DONOSTIARRAK 33 urte ditu eta eraikuntzan egiten du lan, duela hamabi bat urtetik. Eraikuntza, siderurgia, muntaketa-kateak eta garraioa dira, hurrenez hurren, lan-istripu gehien jasaten dituzten sektoreak, eta horregatik hurbildu gara lehenik Telleria-rengana.

Eraikuntzan, tranpa-ohol irekiak, eskailera baxuegiak

Gipuzkoako eraikuntza enpresa batean hasi zen Telleria, baina hiru hilabete inguru iraun zituen, hango baldintza txarrak ikusita. Alda-mio moduan ohol batzuk erabiltzen zituzten, ez zegoen plataformarik, ez babes-barrerarik

atzean, eta arrisku handia zegoen adreiluak oholean jarri, pisuarekin berau puskatu eta beheraino erortzeko. Ahal bezain pronto handik alde egin eta fatxadak zaharberritzen dituen Teusa enpresan sartu zen, seguruagoa bai, baina eraikuntzan ohikoak diren arriskuekin.

Enpresako kamioneta eramaten txofer jarri dute orain Telleria, bi hernia izan ostean. Izan ere, pisu handia kargatu behar dute eraikuntzan, baina sikiera, arazoa txikitu egin dela dio, garai batean 50 kiloko zementu zakuak egiten zituztelako, eta orain 25ekoak. Lehenengo hernia laneko gaitz gisa onartu zuen mutualitateak, bigarrena ez ordea, eta epaitegietan da

orain. Istripu gehiago ere izan ditu: zulatzeko makinarekin ibiltzeagatik bekaina moztea esaterako, edota burua irekitzea, errotaflexaren kablea nahigabe zapaldu zuelako eta makinak buruan eman ziolako.

Arriskurik ohikoenetakoa, dioskunez, aldamiotatik zerbait erortzea da, behean dauden langileen zoritxarrerako. Sarri, ipintzen eta kentzen ez ibiltzeagatik, erosotasunagatik, ez omen dute toldoa jartzen, pikatzen hasten dira eta behean dagoenari obra-hondakinak erortzen zaizkio. Halaber, alturan lan egitea ez al da arriskutsua? Erortzea behintzat ez da erraza, ez dagoelako tarte nahikorik aldamioren eta paretaren artean eta obra berri bat hasi aurretik segurtasun neurriak hartzen dituztelako —enpresa pribatuko ikuskaria dute kontratatuta; aldiz, Gizarte Segurantzakoak obra bakarrean baino ez ditu ikusi Telleriak—. Dena den, beste eraikuntza enpresa batzuetan ikusi ditu lardakeriak: burdin on bat eta krokadura edo lotura izan beharrean, eusteko burdinatxo bat baino ez aldamiotan, “eta estropezu egin eta horri heltzen badiozu, burdinarekin eta guzti zoaz behera”.

Aldamia asko bermatuagatik, materiala lekuz mugitzen ibili ohi dira langileak, puntu zehatz batean pikatzeko adibidez hor dagoen plataforma beheko aldamiara eramanez, eta berriz ere bere lekura bueltatzen ez badu, hurrena datorrenak ez daki hor plataforma egon behar duela, eta erori egin daiteke. Berdin tranpa-oholekin: eskaileretatik igotzerakoan egurrezko tranpa-oholak igaro behar dira, eta ondoren itxi, baina nagikeriagatik irekita uzten dira sarri, eta altuera horretan dabilena zulotik behera joan daiteke; “behin baino gehiagotan gertatu da”. Eta kezkatzekoa baita ere: eskailerak erabili beharrean aldamioko kanpoaldetik igotzen edo jaisten dira hainbatetan, horrek daukan arriskuarekin.

Lan-istripuekiko sentsibilizazio falta? Bestelakoa da Ibon Zubiela eta Iker Espolosin LAB sindikatuko kideen iritzia: “Langileei baino, enpresariei galdetu beharko genieke ea sentsibilizazio hori duten, beraiena delako ardura. Egunero berandu iristen bazara lanera, ez duzu asko iraungo enpresa horretan. Aldiz, neurririk ez baduzu hartzen, inork ez dizu ezer esango, produkzio arloa asko kontrolatzen delako, baina lan segurtasuna ez. Eta prozesu produktiboa kontrolatzen erdi-mailako mandoak baldin badituzte, horiek badakite enpresan zer gertatzen den; nola ez dute jakingo honek edo hark ez duela kaskoa jarri? Hori bai, gero istripua jazotzen denean,

‘kaskoa: ez zeraman kaskorik’. Legeak dio neurrien kontrola egin behar dela, ezin da soilik neurria jarri, egokia dela eta betetzen dela kontrolatu behar da baita ere, eta enpresaren ardura da hori”. Hain zuzen, aldamiotan airtzeko kaskoa oso deserosoa dela onartu du Mikel Telleriak, eta ahal dela ez dutela erabiltzen. Kaskoa, tapoiak... dena den, babes indibidualeko prebentzioa, hartu beharreko azken neurria dela gogoratu dute sindikatukoek, “baina nola merkeena izan ohi den...”. Izan ere, makinaren zaratari aurre egiteko soluzioa ez dira tapoiak, makinak zaratarik ez ateratzea baizik, edo zarata hori langilearengana ez iristea. “Neurri kolektiboak dira garrantzitsuak, lan antolakuntzan eragiten dutenak”.

Duela gutxi, lanean ezbehar baten lekuko izan zen Telleria: lankidea bi metroko alturatik erori zen, muturrez aurrera. Eskaileratik erori zen, murru bat igarotzen ari zela, eskailera eta guzti, eta saihets bat puskatu zuen. Eskailerak murrua baino metro bat garaiagoa izan behar-ko zuen, baina murrua baino beherago geratzen zen eta ondorioz puntu batean bai ala bai eskuak eskaileratik askatu egin behar zituen langileak, hankak jarri ahal izateko. Bakarrik bidali zuten obra hartara, eta are okerragoa izan zitekeen emaitza. “Kasualitatez ni han nengoen orduantxe iritsi nintzelako, baina bestela han egongo zen botata, inor ez zen konturatuko, arnasa hartzea ere kostatzen zitzaion. Gutxienez bi pertsona nek joan behar dute obra batera, zer gerta ere, aspaldiko aldarrikapena da”.

CAFen, leku gutxiegi

Muskulu eskeletikoak (zaintiratuak, lunbagoa...) dira CAFeko lesioen rankingean lehenak. 2.500 langile dira Beasaingo enpresan, eta egunero lauzpabost istripu arin dituzte; ebaki txikiren bat edota txirbilak begietara salto egitea, adibidez. Hala azaldu digute Imanol Urrestarazu ordiziarrak (20 urte CAFen) eta Xabier Pellus ataundarrak (7 urte). Medikuz zerbitzu propioa daukate eta egunero 10-12 pertsona artatzen dituzte. “Geroz eta gehiago ikusten ari gara baja eman beharrean, adibidez burua ireki duen norbaiti, benda jarri eta berriz lanera bidaltzea”.

Lantegi guztian orokorrean oso leku gutxi dagoela kexu dira Urrestarazu eta Pellus, eta horrek eragiten dituela muskulu eskeletiko asko, anabasa handia dagoelako, materiala nonahi, eta lasai lan egin ahal izateko piezak alde batetik bestera mugitu behar izaten dituzte langileek. Esaterako, lankidea bere postuan

Langileak baino, segurtasunarekin enpresak sentsibilizatu behar duela dio LABek, produkzioa kontrolatzen badu, baita kaskoa ez eramatea ere. Ez da soilik neurria jarri behar, berau egokia dela eta betetzen dela ziurtatzea enpresaren ardura da



Aldamio moduan egurrezko ohol arrikutsuak erabiltzen zituen eraikuntza enpresa batean aritu zen Mikel Telleria (ezkerreko irudian). Imanol Urrestarazu eta Xabier Pellus (eskuinean) berriz, kexu dira CAFeko lantegian leku gutxi dagoelako mugitzeko, anabasa handia dago, materiala nonahi, eta muskulu eskeletikoak (zaintiratuak, lunbagoa...) ohikoak dira.

eroso mugitzeko lekurik ez zuelako erori, halabeharrez belaunarekin pieza bat jo eta guztiz izorratu zuela kontatu digute.

Makina asko berritu egin dituzte, eta beraz gehienak prestatuta daude segurtasun aldetik, hatz harrapaketak eta halakoak gerta ez daitezzen, baina mantentze-lanekoentzat ere neurri bereziak hartu beharko lirakekeela aldarrikatu dute elkarrizketatuek, tresna konpontzeko edo garbitzeko segurtasun neurri guztiak kendu behar baitituzte. “Esaterako, lan egiteko orduan tornuan ateez itxita egon behar dute, baina konpontzeko irekita”. Aldi berean, zenbait lekutan makinaren segurtasun neurriak guztiz kentzen dituzte, denek jakinda, langileek nahiz maisuek. “Komeni zaielako, bizio horiek hartu dituztelako, lana azkarrago ateratzeko edota batzuetan beharrak berak eskatuta: adibidez, soldatzeko robotean dena automatizatuta dago, baina zenbait operazio konplikaturik langileak barrura sartu beharra dauka eta sartzeko ateko pultsadorea baliogabetzen du, lanak berak eskatuta. Bestetan ez dago ondo definitua nola egin behar den lana, edota denok onartzen dugu hori dela egiteko modu bakarra...”.

Alturan ere bada lanik CAFen, eta katedraletik –trenak muntatzeko bi metrora dauden

pasilloak– erorita izan da ezbeharrik. Katedrallean, esaterako, atea jartzen dira, baina prozesu osoaren azken fasean, eta bitartean zuloa irekita dago uneoro. “Sareak-eta jartzen dira, baina ez dira eraginkorrak; jendea lanean dago hortxe, soldatzen-eta, eta eroriz gero, lurrera doa”.

Neurriak askotan istripua gertatu ostean hartzen direla kritikatu dute Urrestarazuk eta Pellusek. Iaz, zutabe baten eta garabi baten artean harrapatuta geratu zen lankide bat –zutabea konpontzen ari zen eta atzetik etorri zitzaion garabia–, hil egin zen, eta ordutik garabien sarrerak egokitu dituzte, eremuak seguruagoak izan daitezzen. Lanpostuen arrisku ebaluazioa egiten da, baina zuzenketek oso erritmo geldoa dutela diote, eta sarri adabakiak baino ez direla. Intzidentek gainera –istripua gertatzeko zorian egon denean– ez dira ikertzen, eta beraz ez dira istripu posibleak prebenitzen. Eta administrazioko Lan Ikuskaritza ez omen da inoiz agertzen.

Fundizioan oina izorratu, eta arrantzan hortzak

Patxi Iraetak –izena aldatu diogu– 50 urte ditu eta Gipuzkoako herri batekoa da, baina ia 20 urte eman ditu itsasoan, baxurako



Patxi Iraeta (goiko argazkian) arrantzale izan da urte askoan, igerian ez jakin arren. Itsasoan inongo segurtasunik ez dagoela kontatu digu. Orain fundizioan ari da lanean, eta 9.000 kiloko pieza batek oinik gabe utzi zuen kasik, pieza eusten zuen takoa puskatu eta hanka gainera erori zitzaionean. Michelin enpresan jendeak tranpatxoa bilatzen duela dio Gorka Larangak (eskuinean), makinari denbora irabazteko, produkzio maila jakin bat bete behar baitute, soldata jaistea nahi ez badute.



arrantzan, Getariako portutik abiatuta. Bere hitzetan, oihanaren legea da nagusi itsasoan, ahaztu segurtasuna. Hegaluzearen kanpainan, 10-15 egunerako ateratzen ziren itsasora, goizeko 6etatik gaueko 10ak arte lanean, egunsentitik ilunabarrera, eta erreflexuak behar bezala mantentzeko nahikoa lan. Gainera, 16 laguneko ontzian gehienek alkohola edo/eta beste droga batzuk kontsumitzen zituzten, egoera gaiztotuz. Itsaskia eta eguraldi txarra dira arrisku handienetakoa arrantzan: kolpe pila hartu ohi dira ontzia mugimenduan dela eta arrantzalea arraina batetik bestera eramaten. “Uretara ere erori izan dira, itsas-kolpe bat medio; horrela saihetsak puskatu zituen batek, eta beste bat 20 bat kiloko hegaluzearen pisuak bota zuen itsasora. Igerian ez zekienez, sotapatroiak atera behar izan zuen, zailtasun handiekin”. Harrigarria iruditu arren, adin batetik gorako arrantzale ugari ez baitaki igerian; Iraetaren barkuan, bospasei ziren ez zekitenak, bera tartean.

Zimarroiak ere ez du pisu makala; hari tiraka amuak ihes egin zion gure solaskideari eta kolpeak hortzak izorratu zizkion. Gertakari arrunta da arrantzan, amua oso estu baldin badago, presio handia dela-eta, kanabera ziztu bizian ateratzen baita. Bere lankide batek begia galdu zuen, amuak jota. Arraina fresko mantentzeko hozkailura ere erori zen taldeko beste bat, bost metro kubiertatik. Itsasontzia gelditzean arraina igotzeko, argiak jartzeaz arduratzen da ontzira sokarekin lotuta txalupatxoan doanak, bada, horietako hainbat galdu izan

omen da bidean, itsasontziaren mugimenduren batek iraulita.

Istripuei aurre egitea, gainera, ez da hain erraza itsasoan. Ontzi-ospitalea ibiltzen da inguruan, baina milia batera edo hamar milia-tara egon daiteke, eta 12 ordu ere pasa daitezke elkartu arte. Iritsi bitartean, ontzi-ospitalekoek esaten diete armairu-botikin berezitik zehazki zer baliatu behar duten. Arrantzari ekin zionetik, gauzak ez direla gehiegi aldatu dio Iraetak: marinel izateko ikastaroak eginazten dituzte orain, prestatuago iristen dira gazteak, baina baliabideak ez dira hobetu: “Itsasoa itsasoa da, eta segurtasuna —segurtasun eza—, bera edo oso antzekoa”.

Duela hiru urte, errota eolikoaren fundizio enpresa batera aldatu zen. Piezen tamaina itzela da arrisku nagusietakoa eta kontu handiarekin maneiatu behar dira, alde batetik bestera garraiatzen dituztelako eta piezaren edozein mugimendu ezbehar bihurtu daitekeelako —sustoren bat edo beste izan dute—; garabiaren mugimendu txiki batek eragindako piezaren zambulua zaila da gero geratzea. Hala ere, Iraetak duela gutxi ikusi zuen lantegiko pintorea 6.000 kiloko piezaren azpian jarrita, azkarrago bukatzeko gora begira margotzen. Eta hilabete batzuk lehenago, 9.000 kiloko piezak oinik gabe utzi zuen kasik gure elkarrizketatua. Garabian zeramaten pieza, lau kakorekin eutsita, eta tako baten gainean jarri zuten, baina takoa apurtu egin zen eta erdibidean geratu zen, Zumalakarregiren hankaren eta takoaren artean, oina ezin atera. “Hain pieza handia ikusita, pentsatu nuen

Istripuaren kausak

Hego Euskal Herrian, urtean 100 lan-istripu inguru ematen da —47 heriotza 2010ean—, baina LABeko Iker Espolosinen eta Ibon Zubielen hitzetan, datu ofizialak ez dira zuzenak, jende asko ez baita estatistiketan sartzen, lurpeko ekonomiagatik, autonomo izateagatik, azpikontratengatik... edota enpresen presioagatik: zergatik deklaritzen dira hainbeste istripu arin eta hain larri gutxi? Zergatik igo dira bajarik gabeko istripuak eta gainontzekoak gutxitu? “Zenbat eta prekarietate handiagoa, orduan eta segurtasun gutxiago. Entrega datak atzorako direnean, denborarik ez dagoenean eta ez daukagunean neurriak hartzeko eskubiderik, istripuak gertatzea errazagoa da”, diote.

Lan-istripuen atzean bospasei kausa daude batez beste; arruntenak: lan antolamendu edo prozedura desegokia, neurri nahikoak ez dituen makinaria, prozesu produktiboen protokolo gabezia, prebentzioaren gestiorako sistemarik ez izatea —adibidez, estali gabeko zulo bat—, eta ezaugarri pertsonalak —halako ez iza-

tea lan horretarako egokia—. Sindikalistek salatu dute-nez, ordea, partean honakoak irakurtzen dira gero: “Istripuaren kausa: korrika zihoan. Konponbidea: poli-kiago joatea”, kontuan hartu gabe lan horretarako pres-tatua al zegoen, eremua segurua al zen eta adierazia al zegoen...

Formakuntza falta ere kausen artean dago, baina aitzakia ere izaten dela nabarmendu du Zubiela: “Ikas-taro bat eskaini eta kito, prestakuntza emana, zuk jakin behar duzu nola egin... Eta bai, nik badakit nola egin, baina ez daukat lana gestionatzeko gaitasuna, ez ditut baliabideak eta ezin da erantzukizuna nire gain utzi. Gainera ikastaro eskasak dira, ordu pare bat, sinatu eta aurrera”. Espainiako Estatuaren Lan Ikuskaritzak du Hego Euskal Herriko prebentzioaren ardura, eta erakun-de oso burokratizatua dela dio Zubiela, baliabide falta izugarria duena. European ikuskari bat dago 8.000 langi-leko; Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan oro har, 20.000 langileko bat.

‘agur hanka!’, baina tako zati horrek salbatu ninduen, eskerrak! Dena den, takoak, noski, ez zuen zertan hautsi”. Hilabete eta erdi egon da bajan eta oraindik ere mina du noizbehin-ka, baina hanka dauka, eta ez omen da gutxi, pentsatzen zuenerako.

Enpresan sartu eta lehen hilabeteetan, errebarban aritu zen funditutako piezei txata-rra kentzen eta garbi uzten. Sei kiloko makina da eta ustekabekoak ez dira arraroak: “Gor-putzeko atal bat baino gehiago ebaki dut nik, lau bat aldiz sei hilabeteetan, hasiberria nintze-lako, eta ikasi arte... Lankide batek besoa moztu eta muskulua atera zitzaion, dena kan-pora. Makina astunak dira, indar handiarekin erabili behar direnak, mugimendu txar bate-kin segituan egin diezazuke ihes eta moztu egin zaitzake —moztu baino, azala jaten dizu, erauzi—”. Etengabe txinpartak botatzen, toxi-koak arnasten direla ere kexu da. Haizagailu batzuek langileak arnastu beharreko airea jaurtitzen dute buzoaren atzetik, filtroetatik igaro eta kaskoraino, baina diosku aire hori inoiz ez dela arnastutakoaren %100.

Orain, kanoia deituriko postuan egiten du lan, 300 kilo dituen aire konprimituko esko-peta modukoa, txatarra puskatu arte piezei tiroka. Ez da erraza maneiatzen eta tiroa oker joanez gero zartako bat eman diezazuke, alde batera bota. Berak egunero jasotzen omen du zartakoren bat, baina zortea izan duela dio, ez duelako piezaren baten aurka jo. Hala ere, lan honetan ohikoa da sorbaldako minarekin amaitzea. Hori bai, kontrol neurriak asko

indartu direla gaineratu digu: enpresa pribatua daukate ikuskari eta segurtasunarekin kontzientziatuago daude; “bajak ez zaizkio interesatzen enpresari”.

In itinere, ezinbestean gertatu beharrekoa

Astean bederatzi ordu Pasaiaiko ikastolan laguntza eskolak ematen, beste zazpi eskolaz kanpoko euskara irakasle Donostian eta arratsaldero harreran Hernaniko denda batean. Soldata duina atera ahal izateko, hilabete batzuetarako hiru lan zituen Ainara Garcia 21 urteko altzatarak (Donostia), eta orduak ematen zituen autoan alde batetik bestera —baita bertan bazkaltzen ere— leku guztietara garaiz iristeko. Ondorioa? Pasa den maia-tzean auto-istripua izan zuen, bihurtura zer-bikala eta beste, eta egun osoa medikutan pasa zuen: hiru lan, hiru Mutua, hiru mediku. Astero, sei aldiz joan behar izaten zuen medi-kutara (bakoitzera bi bider), eta paper pila bat bete behar zituen, Mutuek eskatuta.

Mikel Telleriak bezala, Mutuekin ez du batere esperientzia ona izan Ainara Garciak. LAB sindikatuko Iker Espolosinek eta Ibon Zubiela argi dute enpresarien mesedetan jokatzen dutela beti Mutuek, ahal denean lan-istripua izan dela ukatuz, langileari alta ahalik eta goizen emanek, behar duten errehabilita-zioa ezeztatuz, ezintasunak ezkutatuz...

Ezbehar arrunta da *in itinere* ematen dena, hemen ere ez direlako neurriak hartzen, Zubiela azpimarratu duenez: hirietatik industria-guneetara atera dituzte enpresak,

garraio publiko eskasekin (edo horien ordu-
tegia kontuan hartu gabe) eta autoa hartzera
behartuz. “Industria-guneetan egotea erren-
tagarriago ateratzen zaie, zerga gutxiago
ordaintzen dituzte askotan, langileek joan-
etorrian xahutzen duten diruaren bizkar”.

Garraiolarien kasua larriagoa da, sindikatu-
tik azaldu digutenez: istripua dutenean, lantoki
kamioia badute ere, ez da lan-istripuztat har-
tzen, trafiko-istripuztat baizik. Hala, ez dira
lan-baldintzak eta halakoak ikertzen, “eta
agian kamioilariak egun pila zeramatzen
jarraian gidatzen, edo ez zituen frenoak ondo,
gurpilak higatuta zeuden...”. Administrazioak
bi adar garatu baititu arlo honetan: kalte-ordai-
nena eta prebentiboa, bakoitzak bere bidea
egin du eta prebentzioa oso eskasa dela kriti-
katzen dute sindikatuetatik, istripuak ikertzeko
garaian, langileen prestakuntza aldetik edota
neurriak hartzerako orduan –ikus koadroa–.

Michelinen, deskantsurik hartu gabe

Mantentze-lanetan 12 urte daramatza 33 urte-
ko Gorka Laranga añorgatarrak (Donostia)
Lasarteko Michelin enpresan. 700 langile
inguru ari dira egun, eta kontatu digunez, lan-
kide batek jasandako azken istripua izan da
tapizaren eta arrabolaren artean hatzak harra-
patzea eta irekitzea. Duela pare bat urtetik zai-
lagoa da halakorik gertatzea, makina gehienak
berritu baitituzte, automatizatuak eta presta-
tuak daude, baina aurrekoak oso zaharkituak
zeuden, 60ko hamarkadako makinak ziren eta
Michelin bezalako enpresa batean horrek
harritu zuen gehien Laranga, lanera sartu
zenean. CAFen bezala, dena den, mantentze-
lanetan daudenentzat segurtasuna ez da bera,
makina modernoak izanagatik: langilea sartu
ezin daitekeen lekuetara sartu beharra daukate
eta susto bat baino gehiago hartu dute.

Arazo ergonomikoak arruntak dira, mugi-
mendu oso errepikakorrek dituzten postuak
daudelako. “Adibidez, erregulatu daitezkeen
egiaztapen mahaiak eskatu genituen, mahai

Larria? Arina?

Istripuaren
larritasuna partea
betetzen duenaren
araberakoa dela
kritikatu dute
LABeko Espolosinek
eta Zubielak, ez
baitago irizpiderik ez
Osalanen, ez
Nafarroako Lan
Osasunaren
Institutuan. Mediku-
irizpidea badago eta
heriotza-arriskuaren
arabera neurtzen da:
hots, bost hatz
moztu ditzakezu,
baina ez du hiltzeko
arriskurik, beraz
arintzat hartzen da.
“Horren arabera,
larriak diren istripu
asko, anputazioak,
behin-betiko
ezintasunak, arintzat
katalogatzen
dituzte”.

finkoetan altua denak makurtu egin behar
duelako, txikia denak besoak gehiegi luzatu...
eta arazoak sor ditzake horrek. Bi urteren
ostean mahai bat egin dezaten lortu dugu, ea
beste lanpostuetan ere egin dituzten”.

Larangak gaineratu duenez, hainbatek uko
egiten dio atsedeneri –ordu erdi dute ogitar-
tekoa jateko–, bereziki jende nagusiagoak,
produkzio helburuetara iristea gehiago kosta-
tzen zaielako. Izan ere, puntu sistema dauka-
te: 8 ordutan 800 puntu atera behar dituzte
eta produkzioaren arabera puntu gehiago edo
gutxiago lortzen dituzte. Hainbat alditan 800
puntu baino gutxiago eginez gero, soldata ere
horren arabera dute. “Horregatik, jen-
deak tranpatxoa bilatzen du beti, makinari
denbora pixka bat irabazteko. Enpresako dio
denborak ondo kalkulatu daudela eta ez
dela halakorik behar”.

Prestakuntza ikastaro dezente jasotzen
dituzte, baina Larangaren hitzetan ez dira oso
baliagarriak “eta bakoitza sinatu egiten dugu,
pentsatzen dut dirua dagoelako tartean”.
Aurreko elkarrizketatuek ere bizpahiru ordu-
tako ikastaroak jaso izan dituztela kontatu
digute, orokorrean ez probetxugarriegiak.

Kontuak kontu, Michelin sarreran duten
kartel elektronikoa da añorgatarra gehien
mintzen duena: bajadun istripurik gabe hain-
beste egun daramatzatela adierazten du karte-
lak, baina negargarria iritzi dio, baja horiek
ezkutatu egiten direlako. Bere esanetan, istri-
pua izan ostean, baja eman ordez bete deza-
keen bigarren arduraren bat ematen diote
langileari, edo ezer ez, baina bajarik hartu ez
dezan ziurtatuz. “Sentsibilizazio hitza polita
geratzen da paperean, baina errealitatea bes-
telakoa da. Sabaitik harri puska handi batzuk
erori ziren behin, langileak barruan ginela, eta
nagusietako batek, asko pentsatu gabe, zera
bota zuen: ‘Eskerrak ez direla erori produk-
tuen gainera’. Horixe da oraindik mentalita-
tea: produzitzea, ahalik eta gehien, ahalik eta
azkarren”. ■


korrontzi

Zuzeneko berria, **INFERNUKO HAUSPOA** ikuskizuna
(korrontzi & oinkari dantza taldea)

KONTRATAZIOA ZABALIK
Baga-Biga musika bulego integral eta globala
618072076 / 026

2010/01/02 **DONOSTIA** (DOKA - KULTURA LIVE)
 2010/02/16 **ERMUA** (ORBE KARDINALAREN PLAZA)
 2010/02/27 **BERMEO** - IBILALDI JAIA (FRONTOIAN)
 2010/05/02 **NESLE - FRANTZIA** (FESTIVAL NUITS CELTIQUES)
 2010/05/14 **DONOSTIA** (MIRAMON - ETB)
 2010/05/16 **BEASAIN** (PLAZA)
 2010/05/22 **ORAZO - PONTEVEDRA** (MANGUELO FOLK JAIALDIA)
 2010/05/28 **SODUPE - GÜENES**
 2010/06/25 **TERUEL** (POBORINA FOLK)
 2010/06/29 **SEGOVIA** (FOLK SEGOVIA JAIALDIA)
 2010/07/02 **ONDARA VALENTZIA**
 2010/07/18 **REGUENGOS DE MONSARAZ - PORTUGAL**
 2010/07/21 **VALLS - TARRAGONA** (PLAZA)
 2010/07/22 **VILA REAL DE SANTO ANTÓNIO (ALGARVE) - PORTUGAL**
 2010/07/23 **GATIKA - BUTROI**
 2010/07/24 **ALFANDEGA DA FÉ (TRAS OS MONTES) - PORTUGAL**
 2010/07/25 **VILLABONA** (ERREBOTE PLAZA)
 2010/07/31 **OLOST- KATALUNIA**
 2010/08/09 **HUESCA** (FOLK IBERICO JAIALDIA)
 2010/08/11 **AZORES** (LARGO CARDEAL COSTA NUNES)
 2010/08/13 **ZARAUZ** (PLAZA)
 2010/08/26 **LAUDIO** (PLAZA)
 2010/08/29 **BERRIOZAR - NAFARROA** (PLAZA)
 2010/09/11 **CASTRO VERDE (ALENTEJO) - PORTUGAL**
 2010/09/24 **BASAURI** (SAN MIGUEL)
 2010/10/10 **SEGURA** (34. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETA)
 2010/10/31 **SAN ADRIAN - NAFARROA**
 2010/11/12 **IRURTZUN - NAFARROA**
 2010/11/19 **LEKUNBERRI - NAFARROA**
 2010/11/20 **CASTEJON - NAFARROA**
 2010/11/21 **ELIZONDO - NAFARROA**
 2010/12/08 **DURANGOKO AZOKA** (PLATERUENA)

baga-biga musika ideiak
 telf. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com



1939ko urtarrilaren 10ean Bidarten sortutako beskoiztarra. Manu Robles-Arangiz ELA sindikatuaren sortzailearen eta Lurdes Bernaolaren semea, kultura eta arteari emandako hamaika senideko familiako kide da Ugutz. Hainbat taldetako dantzari, antzezle, txiste kontalari eta kantaria, ostaler ezaguna ere bada, urtetan eraman baitu Beskoitzeko *Ama-Lur* jatetxea aurrera. Zer egin duen esatea baino errazagoa da zer egin ez duen kontatzea.

• P E R T S O N A I A •

Ugutz Robles-Arangiz

«Euskaraz esaten den guztia ez da euskara»

Ama-Lur jatetxeko paretak mintzatuko balira, asko isilduko lirateke, eta orduan, auskalo zer istorio asmatuko lukeen Ugutzek. Dakigun bakarra da Ama-Lur-eko hormak ere harrituko lituzkeela.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Errefuxiatuta sortu zinen, II. Mundu Gerra bete-betean.

Ez dut erbestean sortu naizen inpresiorik, beskoiztarra naiz eta kito. Orduko beskoiztarra, oraingoak ez baititut aipatu ere egin nahi. Eskolan, lagunek asko jota *“españolito, burrito, tripatzarrean bi ostiko”* esango zidaten, gutxi gehiago. Alemanen denborako oroitzapenak, alta, iltzatuak ditut. Usu etortzen ziren soldaduak etxera arrautza eta esne bila. Hiru aldiz mudatu behar izan ginen maniobra zonan genuelako etxea. Miseria zen, arropak, behiak eta gainerakoak eramanez etxea utzi beharra. Gogoan dut etxe atarian suzko ziri moduko batzuekin ibiltzen zirela. Inork ez zekien zer ziren. Urte andana berantago irakurri nuen entziklopedia batean, ekialdean errusiarren aurka izandako batailetan alemanek errusiarrei ebatsitako *“órganos de Stalin”* direlakoak zirela, eta Beskoitze eta Hazparne artean egin zituztela entsegu probak. Orduan lotu nituen hariak.

Hamaika neba-arrebako sendian ez zen samurra izango hari guztiak lotzea.

Gaur egunetik so eginik zientzia-fikzioa dirudi. Urik ez zen, zegoen argi apurra mugatua, ez zen ez irrati, ez telebista, ez deus. Baina hala ere, nik haurtzaroko oroitzapen izugarriak ditut. Ikaragarri dibertitzen ginen, oraingo haurrak baino puska bat gehiago segur aski. Beskoitze eta Beskoitze inguruetan ibiltzen ginen, noizbehinka Hazparnera joaten ginen, eta oso noizbehinka Baionara. Baionara joateko autobusa hartu behar izaten zen, gasogenoarekin zebilen autobusa. Maiz bete-beterik etortzen zen eta bide bazterrean pertsona bakarra ikusiz gero gelditzen zen, baina bestela... Orduan, amak sasi artean gordetzeko agintzen zigun, eta behin autobusa gelditurik, bospasei mutiko ateratzen ginen

sasi artetik. Geroxeago, eskolarako txanda heldu zitzaigun. Orain ikusten ditut haurrak Robocop bezala beztituak, herriko plazara ere kotxean joaten direla, baina gu horma egunetan ere oso xumeki jantzita eta oinez joaten ginen eskolara. Pentsa, eskolara hel-tzean errientak berogailutzat genuen trastearen ondoan ezarri behar izaten gintuen, eskuak gogortuta, idazteko kapable ez ginela arribatzen baikin. Gero, aro ederra zelarik, goizetan perra hotsak aditzen genituen, idiak lerro-lerro, itzainak lerdan akuilua bizkarrean, Hazparnera orgetan egurra, lastoa edo belarra garraiatzen. Arratsaldean aldiz, gu eskolatik jalgitzean, itzulera ordua zen, eta idiek bazekiten nora joan behar zuten, baina jabeek a zer mozkorrak!

Zenuen aita izanik, politika kontuak entzungo zenituen etxean.

Aita eta ama anitz mintzo ziren politikaz. Aitaren euskara murrizt samarra zen, ordea, eta politikaz beti erdaraz ari zen. Era berean, guri debekatzen ziguten etxean erdaraz hitz bat bera ere esatea, eta orduko pedagogia sistemak gure aitaren euskara baino are murriztagoak zirenez, erdaraz hizketan harrapatuz gero zapla!, eta fite ulertzen genuen ez ginela hala mintzatu behar. Kanpoan erdarak aise ikasiko genituela esaten ziguten beti, eta etxean bederen, behar genuela euskara atxiki. Denborak arrazoi eman die.


13 urterekin etorri zineten Bilbora. Nola ikusten zuten Bilbo Beskoitzeko mutil koxkorraren begiek?

Askok entzuna genuen Bilbo, baina hasieran oso estua egin zitzaidan, oso itogarria. Has-tapenean, jesuiten kolegioan ez zen eraikuntzarik eta handik mendiei so egoten ginen egunero. Anaiak eta biok bagenuen halako

ezein gon bat barruan, eta beti joka ari ginen pin, pan eta pun. Gu baserrikoak ginen, kanpoan ibiltzekoak, eta ordura arte bi artalde-tako marruak parez pare jartzen genituen elkarri topeka hasten zirenentz ikusteko. Aldaketa handia izan zen, baina fite lasaitu ginen, ohitu, eta bertan lagun eta adiskideak egiteak ere asko lagundu zigun. Gero eskolan, *“formación del espíritu nacional”* zen dena, nahiz eta guk teoria gutxi eta gimnasia asko egiten genuen. Falangista izanagatik gizon ona zen gure maisua eta Kaudilloa zetorrenean zer eraserki jo behar zen galdetu zigunean *“la raspa”* erantzun zuen gutako batek, eta kalera bota arren dena zen broma giroa. Beste behin, anaiari baskongadetan zenbat probintzia ziren galdetu zion, eta anaiak zazpi zirela. Haserretzeko partez, *“nobedaderik badugu, ala? Ai, ai, ai, belarritik antzematen zaizu nongoa zaren!”*, eman zion arrapostu.

Etiket zenekarren kultur zaletasuna praktikan jartzen ere fite hasi zinen.

Billbon, lehenik, antzerkia lantzen hasi ginen Txinpartak izeneko talde batean. Gaur egunetik begiratu, oso erridikulua zen egiten genuena, baina euskaraz zen, eta nahikotxo ibiltzen ginen herriz herri. Gogoan dut behin, Markinako Larruskain auzoan, zahar batzuek antzerkia euskaraz eta bertan neskak ikusi zituztenean negar egin zutela! Titiritero batzuk ginen. Argindarrik ez bagenuen, poste batera igo, bertan entxufatu eta kito. Sekulako indarra geneukan. Beti izan gara kantuzale, dantzazale eta mugituzaleak. Esaterako, niretzat kantua kultura da, baina horren gai-



netik gizakiak barrenean dituen problema eta kezak libratzeko modua.

Gaur egun, alta, hitza geroz eta kamutsago, kantatu geroz eta makurrago, kulturak parte-hartzaitetik geroz eta gutxiago...

Lehenago zaharrak ez ziren gu bezain alegera, gu gazteak baikin, baina alaiak ziren hala ere. Gaur egun, ostatura sartu eta zaharrak irriz atzemanen dituzu, eta gazteak triste



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea

aire bat bisaian. Berrikitan, erosketak egiten ari nintzela, beti bezala nire buruarekin kantuz ari nintzen. 17-18 urteko neska-mutiko batzuek harrituta begiratzen ninduten. “Zuentzat atzamarrarekin botoiari ematea da kantatzea, baina moda zaharrekoak garenok, zintzurarekin kantatzen dugul!” bota nien. Ez zait bilakaera gustatzen. Zer egin daitekeen? Auskalo. Nik karrikan jendea walkmanak jantzita ikusten dudanean ez daudela burutik sano pentsatzen dut.

Eta zer pentsatu zenuen 1960an, berriz Beskoitzera errefuxiatu behar izan zenuelarik?

Nahiko gaitza egin zitzaidan. Egun batez, polizia etorri eta bi anaia zaharrenak preso eraman zituzten. Fite ohartu nintzen horretaz. Irkus armadan zen, eta gure baitan biek pentsatu genuen norbaitek salatu gintuela eta bi anaia zaharrenak eraman zituztela ez-jakinean bi gazteenak zirela saltsan ari. Orduan, biek egin genuen eskapu. Enetako, gogorra izan zen, Bilbon kantuz ari ginen, nahiko fama hartua genuen, eta bat-batean dena uztea nekeza zitzaidan. Zorionez, Beskoitze ez zen sobera aldatu, oraindik jendea euskaldun peto-petoa zen, eta lagun zaharrak ikustek indartu ninduen. Oso gutxira Beskoitzarrek antzerki taldea sortu genuen, eta lehen urtean *Sorginak Etxaburun* obra eman genuen. Pentsa, orduan apezak manatzen zuen herrian, eta neska eta mutilak nahasian ibiltzerik nahi ez zuenez, mutilak bakarrik antzeztera behartu gintuen. Hantxe joan behar izan nuen Baionara ileordeak alokatzerara, eta nik uste, irrigarriagoa izan zela hura obra bera baino!

1968an, Monzonen gidaritzapean eman zenuen *Matalas*, eta ondotik, Daniel Landarten obra bat baino gehiago ere antzetzua zara.

Oso zuzendari ona zen Monzon. Entsegua gauerditan bukatzen bagenuen, txalo zartak jo, eta “ederki eman duzue, emazue berriz!”

esaten zigun, eta hantxe, goizeko hirurak arte. Landarten *Xuri-Gorriak* eman genuenean, aldiz, gogoan dut bere herrian gertatutako pasadizo bat sartu zuela obran. Bertan, auzapezak herritar bati 500 liberako billete bat erdibitzen zion, beste erdia bere alde bozkatzeko bazuen emanen ziola aginduz. Emanaldi batean, Landarten herriko auzapeza justu Danielen aitzinean eseri zen, eta ez dut sekula ahantziko pasadizoa berea zela ohartu zenean ezarri zuen aurpegia.

Askori Ez Dok Amairuk aldatu zion aurpegia eta hor ere ez zinen aparte.

Gogoan dut euskaltarren biltzar batean, Mattin eta Xalbadorren ondotik igo ginela taulara kantatzera. Gureak ez ziren bereziki kantu modernoak, baina euskaraz ari ginen, gitarrarekin, eta batzuek “euskal kultura ehortziko genuela” esaten ziguten bitartean, beste batzuk zale sutsuak genituen. Egun hartan, Mixel Labegeriek hori zela bere betiko ametsa aitortu zidan, eta handik gutxira hasi zen Piarres Larzabalen hitzak musikatu eta interpretatzen, eta hortik partitu zen beste kantatzeko modu bat. Baina errezelo hori orokorra zen, ez pentsa, Bilbon ere kantuz ari ginelarik denek korala baizik ez zuten gogoan. Zenbatek gutxiesten gintuzten “*esos con guitarra española*” lehor batekin, gaztelera puru-puruan jakina. Baina Ez Dok Amairuk gauza asko irauli zituen, eta bide berri eta eder bat ireki zigun denoi.

Garai hartan, oso desberdina zen Iparraldeko eta Hegoaldeko giroa?

Ni errefuxiatu joan nintzenez Iparraldea Hegoaldea baino askoz euskaldunagoa zen. Hegoaldean euskalduna izateko kontzientzia behar zenuen, Iparraldean izan zintezkeen euskalduna besterik gabe. Baina Frantziak konplexu asko barneratu arazi ditu, eta Aljeriako gerlak zentzu horretan sekulako sarraskia egin du. Lehen mutikoez harro esaten



Norahi zoazela. Norahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

OFF THE RECORD

Aberatsa

Jende batek bizitzan eta munduan gertatzen direnak analizatzeko joera etengabea dauka. Beste batzuei gauzak gertatu egiten zaizkie. Jende batek beti kontatzen ditu besteei gertatutakoak. Beste batzuek aski dute eurei gertatutakoak kontatzea. Jende baten nortasuna bizimoduaren arabera erakitzen joaten da. Beste batzuek nahiago izaten dute bizimodua euren nortasunaren arabera antolatu. Jende bat historiarekin akordatzeko da. Beste batek nahiago izaten du istorioekin bizi. Horretaz eta "ofizio asko dituen pobrea seguru" esan zuenak ez zuela erabateko egia esan oharitu gara Ugutxekin hizketan. Ezer izatekotan, aberatsa baita Ugutxen bizitza. Aberatsegia, elkarriketa batean osorik biltzeko.



zizuten, "ni euskalduna naiz, frantsesa baina euskalduna", orain lotsatu egiten dira. Egun, euskaraz dakiten askok ere ez dute euskaraz egingo, eta frantsesa ere, ez dute herrikoa emango, Parisekoaren imitazioa baizik. Harrigarria da, ulergaitza. Seme-alabak ikastolan ukan eta bozaz abertzaleak direnak ostatuan frantsesez mintzo dira, eta heien burua frantsestzat duten baserritarrek euskaraz goizetik arrats.

Mugak gogor dirauela, alegia.

Lurretik desagertuko zen, agian, baina buruetatik... Zorionez, abertzaleen artean, Iparraldekoak geroz eta gehiago heldu dira Hegoaldera, eta alderantziz, baina psikologikoki jende gehiena mugatua da. Aldi batez, elurra-ekin, zazpi orduz egon nintzen autopistan blokeatua, eta ondoan nuen Txirrita moduko gizon handi txapeldun batekin hasi nintzen hizketan. Gipuzkoarra zen bera, eta euskaldunak ginela esan genionean, barre egiten

zuen, mespretxuz. Ni txisteen bidez saiatu naiz nire ikuspegiak ematen, muga horiek hausten, frantsesek baskoiei trufa egiten bazieten paristarrei irri egiten ahal zaiela erakusten, baina ez pentsa umorearekin ere jende anitz konbertitzen duzunik.

"Ez dira betiko garai onenak..." dio kantu ez hain zaharrak.

Harrigarria da Hegoaldean umore espainola nola gailendu den. Harrigarria da gure pentsaera nola kutsatu dugun, nola erdaraz pentsatzera pasa garen. Esaterako, "Utzi Euskal Herria bakean!" erdarakada hutsa da. "Dejad el País Vasco en paz" da. Iparraldean gauza bera. Ez du balio erdaraz pentsatu eta itzulpena egitea. Aurrekoan, euskaldun peto-peto batek esaten zidan, daborduko ez zekiela zuzen edo oker ari zen, kutsaduraren kutsaduraz ez zela bereizteko gai. Euskañola da nagusi, eta harrigarria badirudi ere, euskaraz esaten den guztia ez da euskara. ■



DONOSTIA

Irailaren 3tik 19ra, Gipuzkoa plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi
irakurriz!

• Eduardo Torry •

«Euskal etxeetan gehiegizko tokia du folkloraak»

Eduardo Torry politologoa da, Buenos Airesko Unibertsitateko irakaslea eta Argentinako euskal kolektibitateko kidea. Azken urteetan identitate euskal-argentinarra aztertzen aritu ostean, hainbat euskal etxetan eskaini ditu ikerketaren ondorioak. Kafe bat hartzera gonbidatu dugu.

Testua eta argazkia:

GORKA BERASATEGI

Identitate euskal-argentinarrak ari gara hizketan. Nola ulertu behar euskaldunaren eta argentinarraren arteko uztartze hori?

Gai honi heltzerakoan, euskal identitatea inguru argentinarrean nola ematen den aztertu behar dugu. Identitate euskalduna hemen era berezian garatzen da, gizarte argentinarrak konnotatzen duelako.

Gizarte argentinarra etnia askotakoa da eta identitate argentinarrak ez du oinarri etnikorik. Zentzu horretan, identitate euskaldunak eremu horri egiten dio erreferentzia. Gainera, aldi berean baieztatzen diren identitateak dira. Identitate euskalduna baieztatzen denean argentinarra ere baieztatzen da.

Ez gara bi identiteren arteko fusioaz ari, orduan. Baizik eta esparru desberdinak betetzen dituzten identitateei buruz.

Ez da identitateen arteko fusioa, gainjartzen diren elementuak dira. Baina gainjartze hori ez da inolaz ere gatazkatsua. Izan ere, identitate argentinarra identitate nazionala da, naturala eta zibikoa. Identitate euskalduna, berriz, etnikoa litzake.

Identitate jakin bat eraikitzerakoan, taldeak bere

Euskal gatazka

“Pertzepzioa lausoa da, ez baita informazio askorik mugitzen kolektibitatearen barnean. Zentro asko daude hamar urte besterik ez dutenak, agian identitate euskalduna senitartekoei zerikusia duen kontua besterik ez da haietazako hasiera batean eta ez dute oinarri historiko edo politikorik gatazkan zer gertatzen ari den ulertzeko. Formazioa falta da. Euskal Herria zer den, geografia, historia, egoera politikoa, zergatik gertatzen da hau eta ez bestea, lurraldearen zatiketa... Informazio falta nabarmena da”.

buruz kontaktzen duen narrazioaren garrantzia azpimarratu izan duzu. Zein narrazio osatu du euskal-argentinarrak bere identitateaz?

Ez dago identitaterik identitate hori narrazitzen duen kontakizunik ez baldin badago. Gure kasuan, euskal identitatearen narrazioak zer ikusia du Argentinak bere burua narrazteko duen moduarekin. Argentinako narrazioa denaren barruan, etorkinak oinarritzko osagai dira eta, beraz, euskaldunen kontaktizunak zera esango du: gu oinarritzko elementua gara Argentinako gizartearen eraikuntzan. Horren adibide, Argentinako historian antzeman daitezkeen euskal jatorriko figura garrantzitsuak: aberriko handikiak, militarak, politikariak, pentsalariak... Hor josten da bi identitateen arteko lotura.

Bestetik, euskaldunak Pampan zeudela, nekazal eta abeltzain lanetan, *gauchoarekin* (ondoren Argentinako arketipo irudi bihurtu zenarekin) oso harreman estua izan zuen. Eremu geografiko berean aritu ziren elkarrekin lanean eta elkarren arteko trukea gertatu zen. Euskaldunak zaldian ibiltzen ikasi zuen, *gauchoak* txapela bere egin zuen, eta abar. Hori guztia azpimarratu egiten da euskalduna Argentinan oso era positiboan integratu zela nolabait frogatzeko. Horrez gain, euskaldunari lotzen zaizkion baloreak aipatu behar. Indarra, kementa, zintzotasuna... Eta funtsean gizarte berri baten eraikitze prozesuan langile izanaren irudia atxikitzen zaio.

Euskaldunak bere buruz eraiki duen narrazioak bat egiten al du Argentinako gizarteak euskaldunaz duen pertzepzioarekin?

Kalifikazio guztiak ez dira onak izan euskaldunentzako. Euskaldun basatiaren irudia ere badago. Gaurko garaira gerturatzen bagara, gatazka politikoari lotutako indarkeriaren

ideia ere hor dago. Baina orokorrean bai, bat egiten dute. Euskal izena izen ona da Argentinan.

Zein toki esango zenuke dagoiola euskarari identitate euskal-argentinarrean?

Uste dut toki garrantzitsua eskaintzen zaiola. Edonola ere, hiztunen kopurua oso baxua da. Hemen, beste toki askotan gertatu zen bezalaxe, etorkin euskaldun askok ez zieten haien seme-alabei euskaraz irakatsi nahi izan. Agian gizartera moldatu nahi zutelako, hona etorri ziren eta haien seme-alabak argentinarrak izatea nahi zuten. Baina ongi ikusia dago [euskara jakitea] eta identitate ezaugarri gisa identifikatzen da. Kontuan izan behar da Argentinan mila euskara ikasle baino gehiago dagoela!

Euskal etxe askok Euskal Herrira joateko bidaia antolatuak eskaintzen dituzte. Zein garrantzia du Euskal Herriak espazio fisiko gisa?

Euskal Herria erreferentzia nagusia da. Batzuek euskal komunitate globalari buruz hitz egiten dute. Nik globala pentsatzen dudanean zentrorik gabeko zerbaitean pentsatzen dut eta hemen garbi dago zentro sinbolikoa Euskal Herria dela. Euskal Herria orokorrean hartua, karga politikorik gabe. Euskal Herria, País Vasco, Euskadi... Jendeak ez baitu izen bakoitzak izan ditzakeen ñabarduren berri. Bada, ordea, erakarpen emozional bat esparru fisikoarekiko.

Eta zein garrantzia du folkloreak?

Oinarritzko elementua da. Dena den, nire



“Ez da identitateen arteko fusioa, gainjartzen diren elementuak dira. Argentinarra identitate nazionala da, euskalduna berriez, etnikoa”.

ustez, euskal etxeetan gehiegizko tokia du folkloreak. Beste ate batzuk ireki beharko lirake. Bada euskaldunari buruzko irudi arketipikoa, historikoki izoztua gelditu dena, nahiz eta egun zenbait irudi berrikusten ari diren, eta folkloreak gaur duen tokia antzinako irudi horretan gelditzen laguntzen du. Dantzariaren irudia, esaterako, oinarritzkoa da. Orain ez urte asko, euskal etxearen parte izan nahi zuen edozein gaztek dantzari gisa sartu behar zuen taldera eta ez zegoen beste aukerarik.

Kultur joera berriei toki gehiago utzi beharko litzaieke, beraz.

Bai. Baina askok agian identitate galera gisa ulertu dezake

kultur joera berriei lekua egitea. Talde batek euskaldunari buruz duen irudia baserria baldin bada, baserritarra, dantzaria... eta euskal etxera euskarazko musika elektronikoa egiten duen talderen bat gonbidatzen badu, euskara oso ondo, baina musika elektronikoa...

Gizarte argentinarraren zenbait ezaugarri antzeman al daitezke identitate euskal-argentinarrean?

Bai. Uste dut zenbait praktiketara mugatzen dela, hala ere, eragin hori. Esaterako, sozializazio praktikan ikus daiteke, erakundeetan biltzen den jendeak harremanetarako dituen moldeetan.

Euskal etxean *asadoa* egiten denean, adibidez?

Hain zuzen. Maila horretan izan du eragina. Ez horrenbeste identitatearen narrazioari dagokionean. ■



AMAGOIA i ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea

1. solairua, B 04 lokala (ostirala-larunbata)

DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxekar.com

www.boutiqueaie.com

Tel. 943 336170 • 677 202122



Kontatuko dutena

Idatzi hau irakurri orduko “eskolak” has-tear egongo diren arren, udako oporren hondarrean ari naiz

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padron



Sarasola

idazten, eta sentipen hits batek nau gidatzen. Eguraldiak, oro har, lagundu du baina paisaian, aldetak nabarmenak izan dira. Hirietako kaleak eta herrietako jaiak ikusgarri aldatu dira. Hirietako kaleak atzerriko hizkuntzek harrapatu dituzte; Espainiako Gobernuaren laguntzaz antolatutako ekintza guztiak kartel erraldioen bidez present egon dira han eta hemen; parkeetan, Asociación de Escritores de Euskadik antolatutako emanaldiaz gozatu ahal izan dugu, Escritores de Euskadi horren baitan euskaradunik sartzen ez bada ere, maleruski; eta euskarazko antzerkiak kale kantoitxoren bat izan du, han edo hemen, antzokietako eta kaleetako produkzio handien gibelean... Herrietako giroa “ere” lasaia izan da. Ez da Euskal Telebistara heltzeko adinako istilurik izan. Gauzak orduantxe okertzen baitira: telebistara heltzen direnean. Bitartean, blog-ek dena ondo doala aitortu dute, telebistaren ikus-entzule faltan.

Esaten ari nintzena, bada. Lasaiak izan direla herrietako jaiak “ere”. Baina aldaketa batek harrapatu du nire gogo. Tabernek mahaiak eta aulkiak atera dituzte kaleetara. Txoko guztiak terrazaz bete dira. Eta terrazak eguraldi onaz eta giroaz gozatu nahi duen jendeaz. Baina jendea egonean da egon. Begira. Ia-ia pentsatzera ere ausartu gabe. Eta horrela bazkal edo afal ordura arte. Eta, jateko ordua heldutakoan, lekuan bertan plater konbinatu bat hartu eta aurrealdetik pasatzen den ikusminari begira pasatuko dituzte gainontzeko orduak, edo beste jatetxe edo taberna zuloren batera egingo dute alde. Aulkitik aulkira.

Orain arte, areago bildu izan gara, ospakizun berezietan, batez ere, koadrila handiak urliaren edo sendiaren

lonjan, edo garajeen, edo txokoan. Beti izan da janaria erosten eta prestatzen abilik, baita ondoko jai-giroa antolatzen treberik ere. Aurretik tomatea entsaladan, ondotik marmitakoa edo atun errea eta izozki banarekin bukatzeko ez da asko behar. Hori bai, postrerako esku soinua edo txistua eta danbolina behar.

Eta horiek ezean, gitarrarekin ere konformatu izan gara.

Orain ez bada. Orain, joera, jatetxera joatea da. Eta ez koadrila handitan, kontatutako bikote kopuruetan baizik. Aitzitik, arazoa ez da krisia. Eroapena eta lanerako gogo falta baizik. Aspertu eta alfertu egin gara. Aspertu, “beti batzuk” izateaz lana egiten dutenak. Alfertu, ondo pasatzeko ere norbanako bakoitzak zein nolako ekarpena egin dezakeen pentsatzeko. Ondorioa, denok jatetxera eta *pax cristi*.

Ingurukoekin aztertu dut egoera eta krisia ez da gaitza. Jendeak ez baitu lehen baino afari edo bazkari gutxiago egiten. Konpromiso gutxiago eskatzen dizkion afari edo bazkariak baizik. Betiko lagunekin ez ezik, lagun berriekin biltzea dugu, orain, gustuko. Eta ez litzateke gaitza joera hau, arrazoi nagusia ez balitz, “zaharrari gehiago agoantatu behar zaio” bezalako erantzunak, edota “jatetxean gehiago ordaintzen da baina denok berdin”. Eta umorea, giroa, kantua eta ospakizuna, “hori ere beti batzuek eramaten dute mahaira eta berdin da lonjan

edo garajeen zein jatetxean egon, otordua okertzen ez den bitartean”.

Jaietako paisaiak, beraz, paperean ez hainbeste baina kaleetan eta kale kantoietan, ederki aldatuta sumatu ditut. Europarragoak izan direla aipatu da. Nazioarteagoak. Kanpotik datorren jendearentzat abegikorragoak. Hori guztia ondo dago. Kanpokoak etor daitezten nahi baitugu eta konta dezaten. Kontatutako dutena eta nola kontatuko duten ere, garrantzitsua den arren. ■

«
Espainiako Gobernuaren laguntzaz
antolatutako ekintza guztiak kartel
erraldioen bidez present egon dira han eta
hemen; Asociación de Escritores de
Euskadik antolatutako emanaldiaz gozatu
ahal izan dugu, horren baitan euskaradunik
sartzen ez bada ere, maleruski
»

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Pako Sainza

IDAZLEA

Uigurrak berez txinatarrak?

Uigurrak berez txinatarrak omen dira, hots, txinatar *hanekin* dituzten konponezinak senitarteko liskarrak dira, Euskadi Irratian entzundakoa-
ren arabera. Uigurrak berez txinatar-
rak? Hegoaldeko euskaldunak berez espai-
niarrak? Eta Iparraldekoak frantziarrak?

Kasu honetan gehiago fio naiz Wikipe-
diako informazioaz Txinako Gober-
nuak ematen duenaz baino. XVIII.
mendearen erdialdean Txinako Quing
dinastiak bere gain hartu bide zuen
Xinjiango eremua. Ekialdeko Turkes-
tango Errepublika izena hartu zuenak
1933an lortu omen zuen independen-
tzia Txinatik, baina 1949an Txina
komunistaren mendean erori ziren.
Orduan askok erbestera jo zuten, eta
beren aberrian gelditu zirenek asko
sufritu bide zuten, bereziki Kultur
Iraultza Handiaren garaian (1966-
1976), agintari txinatarrek jazarri bai-
titzituzten euren fedea eta ohiturak, eta
ekonomia aldetik bertan behera utzi
baitzuten eremu hori. Aurrerago,
Pekingo Gobernuak diru asko gastatu
bide zuen independentismo uigurre-
suntsitzeko eta garapen ekonomikoaren aldetik
mendebaleko eremu horren eta Txinako
kostaren artean zegoen aldea gutxitzeko eta, hala-
ber, bitarteko militar eta politikoak baliatu zituen
Ekialdeko Turkestango Mugimendu Islamiko inde-



DANI BLANCO

pendentistaren (ETIM) aurkako borrokan,
NBek eta AEBek talde terroristatzat jotzea
lortuz. Ezaguna egiten zaigu euskaldunoi
uigur herriaren historia. Beraz, uigurrak txi-
natarrak?

Turkieraren familiako hizkuntzan mintzo
dira eta musulmanak dira. Jakina, gurean
bezala, ziur uigur asko edo gehienak elebi-
dunak direla eta *hanak* elebakarrak.
Xinjiang Txinako probintzia handiena
da lurrez, 1.600.000 km², baina gutxi
populatu: 20 bat milioi. Egun uigu-
rrak %45 inguru omen dira; *hanak*
jada %40tik gora, eta beren ohiturak
nagusitzen ari administrazio txinatar-
raren laguntzarekin. 15.000 mezkita-
tik gora omen dira bertan, eta erlijioak
eragin nabarmena omen du uigur
famiilen hezkuntza, ekonomia eta sis-
tema judizialetan.

Uigurretatik hainbatek sentimendu
separatistak ditu eta Txinako Alderdi
Komunistak ezarritako kultur nagusi-
keriari aurre egiten dio. Lehengo
urtean hedabideetatik jakin ahal izan
genuenez istilu larriak izan ziren; txi-
natar agintarien arabera, 156 lagun hil
ziren, eta milatik gora zauritu.

Informazioaren eta hedabideen aroan bizi gara;
garrantzizkoa da mundua gure begiekin ikustea.
Txinako Gobernuaren begiekin ikustea, Espainiako
eta Frantziako gobernuen begiekin ikustea da. ■

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Goiz esnatzea da
izaten dudana ohitu-
retako bat, eta hone-
kin batera kalera irtetea. Hirian kaleak
erdi hutsik besarkatzea gustukoa dut,
hiria esnatzen ikustea. Hiriak badu bere isiltasuna,
ez da dena zarata. Espaloia takoi hotsik gabe
daude; kaleek autoen ohe goxoak izaten jarraitzen
dute. Eta ez hau bakarrik; TAO txartelaren meha-
txuaren orduak ere lotan jarraitzen du. Eta bada,
plazako eserlekutik, beste gertaera bat ikustea gus-
tatzten zaidana: kafe-etxeak nola zabaltzen dituzten
beren atekak. Kafe-etxeko langileek nola prestatzen

Kafe-etxeak

duzen zeremonia osoa. Bart
arratseko eserlekuarekin espaloian
osatutako eskulturaren desegi-
tea; berriro eserlekuak eta mahaia nola lortzen
duten beren askatasuna kateetatik askatzerakoan,
oraingoan beste eskultura bat osatzeko irrikaz;
batzuetan bi lerro zuzen osatuz; besteetan laukiak.
Poliki-poliki eguzkitako oihalek paisaia koloreztat-
zen dute, kolore ezberdinetako mosaikoak eraikiz.
Eta azkenik bada kafe-etxeen nortasuna emango
dion azken elementua: bezeroak. Soziologia ikaske-
ta aparta hau. Kafe-etxeetako atarietan ez dago kar-
toizko oherik. ■

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Pacha Mama haserre dago

Gure Ama Lurra edo ketxuen Pacha Mama haserre dago. Ama izanik begirunea zor diogun arren, ez dugu behar bezala zaintzen, are okerrago, zikindu, bortxatu eta zaborrez betetzen dugu, hiper-ustiatzeaz gain. Dioxidoz bete dugu atmosfera, ozono-geruzan zulo ikaragarriak eragin ditugu, basoak ere hustu ditugu... eta Ama Lurra oihuka hasi da: “Zertan ari zarete, ergelok! Ez duzue ikusten hondamendia dakartzuela zeuen buruen gainera!”.

Baina entzungor egiten dugu. Noiz arte? Zer mundu klase utzi nahi diegu gure ondorengoei? Ama Lurra abisu latzak eman dizkigu berriki ere: Errusian izugarrizko beroak eta suteak, milaka baso eta hektarea suntsitzeraino; Pakistanen uholde beldurgarriak Leh haranean eta Sindh probintzian, hogeit milaioi kaltetu baino gehiago eraginez; uholde izugarriak Txinan ere; izotz-horma edo iceberg erraldoiak askatzen Groenlandian eta Hego Poloan...

Baina horrez gain, bestelako keinuak ere egiten dizkigu naturak, bere edertasunak gure begien aurrean jarritz eta esanez: “Ikusi zeinen mundu ederra jarri dudan zuen eskuetan. Zain itzazue izaki guztiak eta zain ezazue zuen bizilekua, ama lurra”. Eta egu-



DANI BLANCO



Baina jakintsurik gelditzen al da oraindik? Benetako jakintsurik esan nahi dut, jakinduri-az, guztion zorionaz eta ongizateaz arduratzen den jakintsurik?




nero hortxe ikusten ditugu tximeleta pinpirinak txiribuelbaka, alai, eder, arin. Hortxe ikusten ditugu ipurtargiak ere, beren argi magikoa barreiatuz, edota xaguxarrak ilunabarrean, milaka akrobazia eginez. Hor dabilta gure begien gozagarri sorgin-orratzak eta intsektu harrigarrienak, horien artean, kakalardo adardunak (guk Ikazte-gietan, mokotarro deitzen ditugunak); milaka hegazti eta txori mota; gure belarrien gozagarri, kilkerak, galeperrak, itsasoko olatuen joan-etorri sorgorra, errekatxo- murmurio goxo, apala... Gure usaimena lurrin atseginez betetzeko, arrosak eta krabelinak, mendabeltz, menda-fin eta mihiluak edota goizeko ihintzetan garo eta beste hainbat landare arteko paseo lasaigarriak...

Zer egin dezakegu Ama Lurra beti eder eta osasuntsu mantentzeko. Hori mundu honetako jakintsuek esan beharko digute, ikertu beharko dute, politikoetan eta jende xehe-arengan ez baitut itxaropen handirik. Baina jakintsurik gelditzen al da oraindik? Benetako jakintsurik esan nahi dut, jakinduri-az, guztion zorionaz eta ongizateaz arduratzen den jakintsurik? Diogenes bezala “gizon” bila hasi beharko dugu, gizon jator eta zintzoen bila. Horiek, agian, salbatuko dute gure Ama Lurra, Pacha Mama. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Denborak azalarazten ditu batzuetan. Ez beti. Mundiala bukatu ordu-

ko, ligak hasi zaizkigu. Eta Italia, Ingalaterra eta Espainiakoa zor errekek berarekin eramateko zorian daude. Hiru hauen artean Espainiakoa da okerraren dagoena, azken denboraldian berrehun eta berrogeita hamar milioi euroko galerekin. Zulo hau aurreko zuloari gehitu behar zaio, hiru mila eta bostehun bat milioiko zorra metatuz. Ez da egoera hau hedabideetan azaltzen, sartzen dena baino gehiago gastatzea puntako kirolaren ohiko kudeaketaren jokalditzat eta normaltzat hartua baitugu guztiok ere. Europako ligen artean

Ezkutaezinak

Bundesliga jotzen da salbuespentzat, nahiz eta honek ere defizitak egiten eskarmentua baduen. Espainiako

Real Madrid eta Kataluniako F. C. Barcelona omen dira jokalaria kontratatzen gehien gastatzen dutenak. Izan ere, bi horietan bazkideak dira presidenteak hautatzen dituztenak, eta nola ez, publizitate kanpaina azkarrenak izarren erakartzea behar du zutabe, kosta ahala kosta. Zorra zorraren gainean, gaitzerdi ligak eta gainerakoak irabazten baldin badira tamainako desastre finantzieroa zelaiek estaltzen baitu. Eta beti dago instituzio publikoren batean politikoren bat hortaz baliatuz bere arrakasta gu guztion sakelatik ordaintzeko prest egoten dena. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Boisetik jarriak

I

Mekara joan behar den legez
musulman bekataria,
inoiz azaltzen den gisan Halley
kometa hegalaria,
nola taldera itzuli ohi den
apartatu den ardia...
Bost urtean behin mundu osora
zabaltzen da deialdia,
euskaldun denok Ameriketan
dugun hitzordu handia,
gutxienez behin bizi behar den
Boiseko euskal jaialdia.

II

Bilbao-Paris ordu bi dira,
siesta on bat bestela,
Paris-Seattle egun erdi bat,
iragarkiak bezela,
Seattle-Boise bi ordu t'erdi,
erromerian Kupela,
pasaportea esku batean
bestean bidai-txartela,
bide luzea egin ondoren
Idahora goazela...
hona helduta ia ematen du
Munitibarren gaudela!

III

Dantza-taldeak, ikastola bat,
ikurriñak alboz albo,
Ameriketan batzen gaituen
herria bizirik dago,
inork epaitu ezin dezakeen
nortasunaren abaro.
Nola ote da posible egun,
(seko harriturik nago!?)
asaben lurra utziagatik
Atlantikotik harago
Boise sentitzen dudala hura
baino Euskal Herriago?

INIGO AZKONA



IV

Euskara erraz galtzen den arren,
(hori ez da nobedade)
Boisen oraindik hiztun ugari
dira hizkuntzaren jabe.
Bizkaitar, baxe-nafar, lapurtar...
Zenbat gizon eta andre
“erran gura dot” gisako moldez
mintzo direnak halere!
Batua propio bat sortu dute
Euskaltzaindiarik gabe,
elkar ulertu nahi den garaian
arauak soberan daude.


V

Boisek badauka altxor handi bat
zelosamente gordea,
mendebaldeko edozein urre
pipita baino hobea:
alkate jauna gizon ona da,
pertsona paregabea,
euskaraz aise egiten duen
demokrata dotorea.
Hobe Euskadin alkate gisan
dugun maketo taldea
ausartu balitz segitzera Dave
Bietarren adibidea.

VI

Presente egon arren aizkorak
eta zilindro astunak,
iraganeko estanpa honen
zerbait du etorkizunak.
Amerikarrak dira jaialdi
honetan dauden lagunak
baina eurengan lekua dauka
izaera euskaldunak;
nola Amerikan geroa duen
euskaldunen nortasunak,
guretzat zerbait izango ahal du
Europako Batasunak?

DOINUA: “Albzturtikan Bidaniraino”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Kultur Hiriburua



G.B.

Europaren doinuarekin zein hirik dantzatuko

2016an Poloniako hiri bat eta Espainiako Estatuko beste bat Europako Kultur Hiriburu izango dira. Eta hori lortzeko lehian dira Iruñea eta Donostia. Hurbiltzen ari da eguna: irailaren erdialdean Madrilen izango dira komisario europarrak aurre-aukeraketa egiteko. Guk, lehiaketa aitzakia harturik, hiri bakoitzaren kultur eskaintza aztertuko dugu orriotan.

GORKA BEREZIARTUA

ZAILA BAITA irailekoak eman dezakeena igar-tzea. Ez dago kriterio zehatzik. Edo hori ematen du behintzat *El Mundo* egunkariko kultur gehigarriari Sir Robert Scottek aurtengo maiatzean eskaini zion elkarrizketa irakurrita. Bera da Kultur Hiriburutza ematen duen komisioko presidentea eta mokia estutu zuen kazetariak aukeraketa-irizpideez galdetu zion bakoitzean. Zaplana eta zertzena bakarrik eman zituen: proiektuen dimentsio europarra eta herritarren parte-hartzea garrantzitsuak ei dira. Beste argibiderik ez, oraingoaz. Klaro

dagoena zera da: iraileko aurre-hautapenean Espainiako Estatuko hamasei hautagaietatik lauzpabostek bakarrik jarraituko dutela aurre-ra, eta horiek, urtebete barru, komisarioen bisita izango dutela. Jokoan dira hautagaitzak bultzatzeko gastatutako sosak; eta esperantza da, irabaziz gero, turismoarekin kontuak berdindu ez ezik alozak egingo dituela garaileak. Baina horiek aurreragokoak dira. Momentuz ikus dezagun zer daukaten eskaintzeko Donostiak eta Iruñeak, Mikel Iturriaren eta Patxi Larrioren analisien arabera. ■



Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitza 2008an aurkeztu zuten.

Donostia 2016ari begira Donostia 2010etik


MIKEL ITURRIA

*“Zenbakeiek balio dute soilik
eta artea leiren mundukoa da...”*
Anari

2006KO MAIATZEAN Donostiaren kultur proiektu handiak zeintzuk ziren ezagutzera emateko jardunaldiak antolatu zituen Udalak San Telmo Museoan. Bertan aurkeztu ziren Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa eta Tabakalera. Victoria Eugenia 2007ko martxoan inauguratu zen. San Telmo datorren urtean inauguratuko da, udal hauteskundeak baino arinago. Tabakalera, berriz, ez dakigu noiz inauguratuko den.

2008an erabaki zuen Donostiak 2016ko Europako Kultur Hiriburu izateko hautagaitza aurkeztuko zuela. Harkaitz Canok zera esan zuen aurkezpen ekitaldian, besteak beste: “Asko hitz egiten da aurrerabideaz, baina gutxi albora egiteak dituen abantailez. Eta

kulturaren funtzioa, beharbada, alboan dago eta ez aurrean: ez litzateke txarra noizean behin, xakeko zaldia bezala, aldi berean aurrera eta albo batera mugitzeko gaitasuna izatea”.



SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016

Begira dezagun, beraz, alboetara. Donostiako ordezkariak Madrilgo Kultura Ministeriora 2016ko hautagaitza aurkeztera joan ziren egunean, 2010eko uztailaren 9an, Udalak DOKAko (Donostiako Kafe Antzokia) soinu-ekipoa zigilatu zuela jakin genuen. Dirudienez, ekainaren 23an, gaueko 23:00ak pasata, behar zuena baino ozenago zegoen aretoko musika.

Diego Manriquek *El País* egunkarian idatzitako *La ciudad bajo asedio* (Setiatutako hiria) zutabeaz akordatu nintzen berehala. Madrilgo Udalak zuzeneko musika programatzen zuten aretoei zer nolako *laguntzak* ematen zizkien aipatzen zuen Manriquek. Garai hartan bertan arazoak izan zituen Bil-

boko Kafe Antzokiak. Argigarriak kazetariaren hitzak: “Askok uste dugu rocka, jazza eta antzeko musikek tamaina txikiko edo ertaineko aretoak behar dituztela, lasaitasun giroan talde edo bakarlariekin gozatzeko tokiak, kopa eskuan dugarik, inolako eserlekuri lotu gabe. Ekimen pribatuko lokalak, udalaren *ulermen*a merezi dutenak, baita gehiago ere (salbuespen fiskalak?). Edozein hiriko kultur ehunaren zati dira eta zaindu beharko lirateke, ez jazarri. Eta jazarpena egon, bada-go: adibidez, Madrilgo udaltzainen astakeria hori, DJen poltsak arakutzen disko piraten bila!”.

1980ko hamarkadan herritarrek ez zuten nahikoa azpiegitura gustuko arte-adierazpena ezagutzera emateko, baina gogoa eta beharra baliabideen gainetik jartzen direnean, nahikoak dira zuk nahi duzuna egitera hurbiltzeko. Duela hogeitau urte musikak pisu ederra zuen gure aisialdian (orain aisialdian, lanean, kafetegietan, dendetan, *full time*), baina Kaki Arkarazok duela gutxi eginiko elkarrizketa batean esan bezala, lau kanta ziren behin eta berriz errepikatzen genituenak.

Donostia Kulturak 2009an ia 26 milioi euroko aurrekontua izan zuen. 180.000 biztanle dituen hiri batentzat ez da kopuru eskasa. Aparte utzi behar dira Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Kursaal-eko hainbat kultur ekitaldi, eta abar.

2010-2011 epean Aieten eta Intxaurrendon beste bi kultur etxe zabalduko dira. Aietekoa espezializatua egongo da giza eskubi-deen alorrean eta bertan izango du egoitza gai horiei buruzko institutu batek. Intxaurrendokoa, berriz, Gasteizko zentro zibiko bidetik doa. Kiroldegia integratua izango du. Ahaztu gabe San Telmo Museoak ere atek berrir irekiko dituela 2011n.

2009-2020 eperako proiektua aurkeztu omen du 2016ko hautagaitza donostiarrak. 89 milioi euroko aurrekontua, prentsan irakurri dugunez. Horietarik, 40 milioi 2016ko urtean bertan gastatzekoak. Diru asko da, bai, baina erreparatuz gero beste zenbait konturi, ez da hainbesterako. 4.920 milioi euro aurreikusi dituzte AHT, metroa eta autobus geltokia garatzeko. Donostiako bigarren errepide gerrikoak, berriz, 300 milioitiki gorako kostua izan du.

Donostiako kultur adierazpen erraldoienak (Aste Nagusia, Zinemaldia, Jazzaldia) turismoa erakartzeko sortu zituzten XX. mendearen bigarren zatian. Bilboko Guggenheim Museoa Euskal Herriko erakundetako

ekonomia sailek bultzatutako proiektua izan zen. Okerrena da Kultura sailetako dirua jaten duela.

Irailaren amaieran U2 taldeak kontzertua eskainiko du Donostiako Anoeta Estadioan. Erakundeek, Foru Aldundiak eta Udalak, seguru emango diotela laguntzaren bat kontzertu sustatzaileari. Kultura aurrekontuak hustu beharrean, hobe da hori sartzeari turismoa erakartzeko partidetan.

2006ko jardunaldietan, Josep Ramonedak esan zuen publikotasunaren kudeaketaz ari garelarik legitimitate demokratikoa dela hierarkiaren lehen mailan jarri behar dena. Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroko (CCCB) zuzendariak hori nola ulertzen zuen interesatzen zait. Berak ondo baino hobeto zekien kargutik kentzeko eskubide osoa zutela politikariak, baina bera karguan zegoen bitartean haiek ezin zutela muturra sartu bere eremuan. Abantaila bat zuela aitortu zuen Ramonedak, Diputa-

zioa baita patronorik handiena eta berau eguneko tentsio politikotik at omen dago Bartzelonan.

Horixe da azken urte hauetan gehien aldatu dena eta, Joxan Muñozek Tabakalera utzi zuenean, egoera ondo baino hobeto laburbildu zuen bi esalditan Xabier Erkiziak: “Harri-garria da politikariak kultura kudeatzaile lanean ikustea. Horrela funtzionatzen dugu hemen”.

Disney, Guggenheim eta beste hainbat korporazio nagusi diren iji-aja urteak bizitzeari tokatu zaigu. Munduko biztanle guztientzako nahikoa baliabide ez eta fribolitarea da nagusi eremu serioetan ere. Okerragoa da garai postmoderno hauetan dugun memoria eza. Normala da hein batean, gure begi aurrean zenbat informazio pasatzen den kontuan hartuz gero. Batzuetan badirudi krisia etorri dela poetaren udaberria bezala, inork jakin eta konturatu gabe. Eta hori ez da oso normala. Agintariak ondo baino hobeto jakin beharko lukete krisia izan dela gure egoera naturala.

Buka dezagun Harkaitz Canok 2008ko maiatzean esandako beste hitz batzuekin: “Zer da baina, askotan ahoa betetzen digun delako *kultura* hori? Kaosa argiago ikusteko gaitasuna? Plazera besterik ez, plazererako bidea erraztu eta plazera ematen duena? Gure destinoaren kodea deskodetzeko era bat? Sineskeria estetikoak? Agian arrazoi zuen Roberto Bolaño, eta kultura flotadore bat besterik ez da. Ez da hain gutxi ere”. ■



Lau zutabetan oinarritzen da Iruñearen hautagaitza. Festa hiria izatea –Sanferminak, alegia– da horietako bat.

Hautagaitza berde hitza

PATXI LARRION

“PRAKTIKA KULTURALEK egiten gaituzte pertsona”, Antton Lukuk *Euskal kultura?* izenburuko saiakeraren kariatara esana. Nekez asmatuko genuke kultur neurgailurik, baina horrelakorik balego, nor da kultuago, entzute handiko orkestra bateko abonatua ala bere auzoan antzerki taldean ari dena? Galderari ez zaio demagogiarik falta, baina egungo panorama ikusirik ezin esan galdera hori egitea zilegia ez denik.

Kulturatzat, maiz kultura jasotzat, hartzen ditugun hainbat jardueraz ari zen Luku saiakera horretan. Jarduera horiek negoziotik dute asko, izan ere kulturaren diruak azpiegituren eta propagandaren zerbitzura egon ohi dira. Zenbat eraikin (kultur etxe, areto, gune) ordaindu dira Kultura Sailaren diruekin? Bestalde, agintariak propagandarako tresna gisa

baliatu ohi dute kultura. Europako Kultur Hiriburua izateko lehiaketak kulturatik ba ote duen galdetu beharko genioke gure buruari, kultura hitzaren moztasun azpian negozio eta propaganda politikoa agertzen direla ezaguturik.

Kritikak kritika, lehiaketa bat dugu hizpide, eta izendapena lortzeko Iruñeko Udalak egin duen lana aztergaia. Pamplona 2016 hautagaitzarenak baditu bere alde onak. Batetik, egokiera honek Nafarroako hiriburuaren eskaintza kulturala aztertzeak aukera eman digu eta bestetik, gure agintariak, kasu honetan Iruñeko Udalak zuzentzen dutenak, kulturaz duten ikuspegia ezaugu dugu, lanbide horretan hautagaitza publizitatezko erabili dituzten irudiek berebiziko garrantzia dute. Hona egunotan Iruñeko karrikak edertzen eta hautagaitza publizita-



tzen erabili dituzten irudiak: Sanfermin, Santiago bidea irudikatzen duen gurutzea, Goia-ren San Adriango markesa margolana, biolin bat (Sarasaterena?), Oteizaren eskultura bat eta kiliki bat.

Irudiak bezainbeste hiri definitzeko erabili dituzten leloak zuzentzen gaituztenen ikuspegiaz mintzo zaizkigu. Hiri Artistikoa, hiri berdea, kultur hiri eta festa hiri dira gure agintarien iritziz Nafarroako hiriburua ezaugarritzen dutenak.

HIRI ARTISTIKOA. Inork esanen digu alferrik ari garela Gaztelu Plazako aparkalekuaren obrarekin galdu zen ondarea gogora ekartzean. Interesa duenak eskura dauka, *Plaza del Castillo. Pamplona-Iruña, 2000-2003. Gazteluko Plaza Aldeko Plataforma. Una lección de democracia ciudadana frente a la destrucción de 2.000 años de Patrimonio* liburua. Beti ere, Gaztelu Plazakoak ez dira alde zahar zabal honetan aurkitutako aztarna bakarrak. Udalak jarraitu du hirigunea zulatzen. Azken urteotan egin diren aurkikuntzekin era birtualean berregin daiteke hiri zaharra, mendez mende berregin ere. Menturaz ez da soluziobide ramegantee-na izanen, baina hainbat tokitan gisa horretan

Ezinbestekoa da erakundeen eta gizartearen arteko elkarlana. Baina nekez gertatuko da hori, erakundeek kultur-taldeentzat eta bereziki sormenarentzat bideratu ohi duten dirua hautagaitza baten sostengurako desbideratzen badute

erabiltzen dira teknologia berriak. Ziur aski alde zaharraren zabala da hiri artistikoaren ondarerik preziatuena eta horri ez zaio garrantzirik ematen. Europan gutxi izanen dira Iruñearen tamainako hiriak horren alde zahar handiarekin, eta eszenatoki hori ez dugu behar bezala erabiltzen. Hor dugu gure benetako erakustazoka.

KULTUR HIRIA. Katedrala da Iruñean turista gehien biltzen duen monumentua, ondoko eraikinean Kultura eta Turismo Sailaren egoitza dago, eta eraikinaren aurrealdean zenbait oihai handi zintzilikatu dituzte, bertan Nafarroako Gobernuak datozen hilabeteetarako antolatu dituen ekitaldiak publikizatzen dira. Murtziako turistek ere beldur gutxi liokete Iruñeko hautagaitzari, oihalen edukiari erreparatuz gero. Inork esanen du Gobernu ez, Udala dela hautagaia, beti ere, Gobernuaren



Dive Tarpoon
urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkaia)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpooon@euskalnet.net
www.divetarpooon.com

eta Udalaren arteko muga lausoa da afera honetan, eta Kultura Saila hautagaitzaren zerbitzura ari da.

Gurean, euskara kultura baino likarbidea duzu. Iruñeak hautagaitza aurkeztu eta berehala betiko kritika jaso zen, euskara zokoraturik agertzen zen Pamplona 2016 hautagaitzaren propagandan. Diseinua izan zen euskara ezkutatzearen argudioa, Pamplona behar zuen, Iruñeak traba egiten baitzuen 16 zenbakia eta Pamplona hitza erabiltzean, Iruñea proposatu zuen diseinatzaile euskaldun batek. Kritika eta errekurtsioen ondoren, euskara nolabaiteko maiztasunez ageri da hautagaitzaren kanpaina, beti ere, Iruñeko Udalak berezkoa duen estiloan. Euskarazko testuak gris argian agertzen dira Iruñeko euskarri orotan, berebiziko esfortzua egin behar da Udalaren iragar-ki-taula, liburuxka, kartelak eta argibideak irakurtzeko tenorean, Nafarroako okulistek aspaldi ohartarazi ziguten, hamarretik bederatzik euskara ikastea gomendatzen dute, euskaraz irakurtzeak ikusmena hobetzen baitu.

HIRI BERDEA. Horiak inguratzen du Iruñea, baina hiria berdea da, parkeak eta Arga ibaiaren ingurua horren erakusgarri. Urdina kosta ahala kosta sartu badute ere, berdea izan da urteetan Iruñeko Udalaren kolorea eta propaganda ikusirik badirudi berreskuratu dutela hautagaitza honetarako. Berdeaz ari garelarik ezin ahortzi hiri berdearen bihotza, Arantzadi. Argako meandroa da kanpotarrari atentzio gehien deitzen diona, hiriaren erdian, alde zaharretik aski hurbil nekazaritza. Dena ez da baratzea Arantzadin, baina berdea da nagusi. Baina egungo Arantzadik iraungitze data dauka, krisiak atzeratu du Udalaren egitasmoa, bertan parke bat egin nahi du, eta egitasmoaren arabera eraikin handiak ez dira desagertuko, mehatxupean direnak Arantzadiko baratzeak eta baserriak dira. Bada, hona gonbita irakurle, bizkor ibili inguru bakar hau ezagutu nahi baduzu.

FESTA HIRIA. Gure agintarien aburuz, zezena eta horren ingurukoak nafar guztien ondarea dira. Sanferminen Museoa izan da hautagaitzaren perla, egun perla harri bat besterik ez da, krisi ekonomikoak guztiz baldintzatu du museoaren eraikitzea. Kronista eza- gun batek aspaldi ohartarazi zigun museoaren zentzugabekeria, nori bururatu zaio Sanferminak museo batean kaiolatzea? Ausartak izan gaitezen, egin dezagun parke tematiko bat, Iruñea hegoaldean, konparazio batera, Arizabalagan Sanferminen Hiria eraiki, ber-



2002koa da goiko argazkia, Gaztelu Plazako obren gordinean atera zen. Ondare artistikoari kalte handia eragin zioten lan haiek. Alde zaharra da Iruñeak erakusteko dauzkan txokoen artean kultur ikuspuntutik interesgarrienetako... baita probetxu gutxien atera zaiona ere.

tan uztailaren 6tik 14ra gertatzen dena urte osoan egunero berrituko da, parke tematikoa uztailaren 5ean itxi eta 15ean zabaldu. Astakeria dirudi, baina azken urteotan Sanfermin- nek izan duten bilakaera eta erabilera ikusirik, ez dirudi horren ideia txorora denik.

TORUN. Poloniako hiri hori ere Kultur Hiria izateko hautagaia da, horra kasualitatea, Polonia katolikoa aukeratu dugu bidelagun. Torun eta Iruñea elkarrekin ari dira kanpaina. Bi urte igaro dira zenbait zinegotzik Kopernikoren sorlekura egindako bisitatik. Zinegotzi horietako zenbaitzuk Torun hiriko jendearen parte-hartzea azpimarratu zuten, nonbait ezaguna zuten gurean zeinen kilikagarria gertatu den kanpaina.

BALANTZEA. Ez da erraza jakiten zenbat diru gastu den hautagaitza sustengatzen, garbi dago kulturarako zuzenduriko hainbat diru 2016koaren zerbitzura jarri dela, bestalde Udalarekin hitzarmena duen elkarte eta talde orok nahitaez publizitatu behar du hautagaitza, logoaren bitartez. Adituek diotenez, ezinbestekoa da erakundearen eta gizartearen arteko elkarlana kulturaren alorrean. Baina nekez gertatuko da hori, erakundeek kultur- taldeentzat eta bereziki sormenarentzat bideratu ohi duten dirua hautagaitza baten sostengurako desbideratzen badute.

Iruñea inoiz abangoardiaren erdigunea izan zen, 1971 Topaketak lekuko, *encuentros* hitza da topaketa horien espiritutik hautagaitzak berreskuratu duen gauza bakarra.


Hautagaitzaren lehiaketarena pasako da, zezena Iruñeko karriketatik pasatzen diren bezalatsu, inoiz, adarkadaren bat emanez.

Bizkitartean, hiri honen negu luzeko igande gauetan, karrikak hutsik direlarik, Toki Lezan biltzen den bakarlari taldearen emanaldiaz gozatuko dugu. Noiz arte? ■

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Katuaren oihua. Oso. 2. Irrikan. Berrogei zenbaki erromatarrez. 3. Norat atzizkia. Espirituak. 4. Zur sendoko zuhaitza, lore zuri usaintsuak dituen. Zezen zikiratu. 5. Pare bat. Sokaz eginiko esku-eskailera. **Argazkiko lurmuturraren izena.** 6. Elaia. Firurikan. 7. Euskal Herria dagoen kontinentea. Larruazalean egindako ukaldiz eragiten den zirrara, irri dardartia ekartzen duena. 8. Abereei lepoan jartzen zaien eragozgarria. Iparrorratzaren lau puntu nagusiak.

Goitik behera:

1. Mirabe bihurtu. 2. Irakinaldi. 3. Arto, hitz-elkarteetan. Euskaltegi sarea. 4. Azken eta hirugarren bokalak. Izartegia. 5. Enperadore. 6. Altuak, garaiak. Oka. 7. Irrika, gogo bizi. Nafarroako herria. 8. Mila milioi. 9. Txadeko herritar. 10. Atera, irten. Ukimen. 11. Orban txiki. 12. Ontziaren egituraren ardatza. 13. Egurra mokoaz zulatzen duen hegazti. 14. Keinua, bereziki isekazkoa. 15. Egokiak.

Sudokuak

Erraza

4		2	7		6	9		5
		8	9		2			7
	6	7			8			3
		5				8	7	4
8	4	9				5		
5			8			1	4	
1			3		4	7		
7		4	1		9	6		8

Zaila

	1							
9			3	1				2
		2	8	7			9	
	7		4					6
6								9
8					2		3	
	8			4	9	5		
4				8	3			1
							7	

Soluzioak

8	3	6	3		1	5	9	7	2	4	1	8	6	5	3	7
7	2	4	1	5	9	7	2	4	1	8	6	5	3	7	2	4
9	7	5	3	2	4	1	8	6	5	3	7	2	4	1	8	6
2	1	4	8	6	7	3	5	9	8	4	6	5	3	7	2	1
5	9	3	8	6	7	3	5	2	1	4	8	6	5	3	7	2
6	4	6	6	7	3	5	2	1	4	8	6	5	3	7	2	1
2	7	1	4	8	5	3	6	9	8	4	6	5	3	7	2	1
6	3	5	2	9	1	8	7	4	6	5	3	7	2	1	4	8
9	6	7	5	4	8	2	1	3	5	8	9	1	2	4	6	7
3	5	8	9	1	2	4	6	7	4	1	2	7	3	6	9	8
4	1	2	7	3	6	9	8	5	8	9	1	2	4	6	7	5

Erraza

Zaila

2	3	9	6	5	1	4	7	8								
4	5	6	7	8	3	9	2	1								
7	8	1	2	4	9	5	6	3								
8	9	5	1	6	2	7	3	4								
1	7	3	4	9	8	2	5	6								
6	2	4	5	3	7	8	1	9								
3	6	2	8	7	4	1	9	5								
9	4	7	3	1	5	6	8	2								
5	1	8	9	2	6	3	4	7								

Ezker-eskuin: 1. Mian. Guztu. 2. Irrika. XL. 3. Rat. Anmak. 4. Akzara. Idi. 5. Bi. Eskala. Ogoño. 6. Enara. Zurrutik. 7. Europa. Kilika. 8. Urka. **Goitik behera:** 1. Mirabeu. 2. Irakin. 3. Arta. AEK. 4. U. Zerna. 5. Kaisar. 6. Garak. Ok. 7. Uzi. Azpa. 8. Mihar. 9. Txadar. 10. Ili. Uti. 11. Ohi. 12. Gila. 13. Okil. 14. Naka. 15. Onak.

Oporren ostean

Itsuki Tikitaka oporretatik itzuli da gaur Tokioko bere bulegora. Lanean hasi orduko lankide guztiak inguratu zaizkio, eta horietako batek honela galdetu dio:

– Kaixo Itsuki! Ondo ibili al zara oporretan?

Eta Itsukiren erantzuna:

– Ez dakit! Oraindik ez ditut argazkiak ikusi!



Kike Amonarizen umorea

Liburuak

KRITIKA

Galerna.
Iratxe Esnaola.
Elkar.
91 orrialde. 11 euro.

Helduen literatura
Gema Lasarte



Maitasun galerna

EGUN BATEZ, abuztuaren azken egunez, oporrak amaitzen diren eta berriro ere lanera bueltatzeko eguna heltzen den mugako egunean kokatu du bere lehen eleberria Esnaolak. Denbora mugakidea bada, espazioa ere halaxe da eleberri motz honetan, izan ere, espazio hertsian eta txikian garatzen baita eleberria: hotel bateko gelan maleta artean, ez leku batean, non hiriak ere izenik ez duen, SS. Kostaldeko hiri txikian. Gela horretan, batez ere, bi emakume kokatzen dira, bat leihotik kanpora itsasoari begira, bizitzari so eta bestea, ateari begira ateratzeko edo sartzeko prest.

Itsasoak, leihoak, maletak eta atea eszenifikatzen dute Esnaolaren istorioa. Nora leiho ondoan, itsasoari begira dago; hoteleko zuzendariaren alaba, berriz, atearan ondoan, Sebastianen (Noraren senarra) zain, ihes egiteko prest. Bata bizitzari, heriotzari begira dago harremanen ezintasunean sinetsia. Senarra ustez maite du, baina senarra umezalea da, umeak maite ditu. Nora ederra da eta erakargarritasun sexual horretaz baliatzen da gauero gizon diferente batekin oheratzeko. Maitasun zurrumbilo horretan hoteleko zuzendaria itsuki maitemindu zaio eta harekin betirako geratzeko eskatzen dio. Harreman hauen guztien metafora eleberriari tentsio narraitiboa ematen dion galerna da. Eta Norak leihotik begira dena ikusten du, galernaren etorrera, sentimenduen gezurra eta lehertzea.

Hoteleko zuzendariaren alaba nerabea, Lolita gisara aurkezten zaigu, ate ondoan, ezkontuta dagoen Sebastianekin ihes egiteko zain, eta sekulan bizi ez dituen bekatzeko harremanak izateko prest, baina eleberriaren bukaeran aitaren maitasun ezera makurtzen du bere diskurtso guztia. Bi emakumeek gidatzen dute sentimenduen baratze nahasia: botere rola, generoa, fidelitasun eza, ezkutuko edo zilegi ez diren harremanak ardatz tematiko dituztelarik. Eta eurekin dituzte existitzen ez diren senarrak, existitzen ez diren aitak eta emakumeen elkarren arteko betiko lehia.

Galernaren zain, leku ezin hertsia goan, harreman sargoritsuen artean bi emakumeek elkarrekin hitz egiten dute ordea. Eta hortxe legoke eleberriaren inflexio gunea; horrek ematen dio bukaera eleberriari, maitasun erromantikotik atera eta familia tradizionala erabat kuestionatuz. Norak senarraekin konpartitu behar zuen trenerako biletea hausten du eta bakarrik doa. Zuzendariaren alabak maletak desegiten ditu eta inoiz eduki ez duen aitarekin geratzeko lehenesten du.

Gustura irakurtzen den nobela da Esnaolarena, baina nire irudirako elementu gehitxo daude hain motz tratatu ahal izateko. Izan ere, berekin dituen elementu eta gai interesgarriak gehixeago gartzeak ez ziokeen batere kalterik egingo maitasun galerna honi. ■

Lertxundiren obra hibridoa

Ez da berria liburua, baina ezin aipatu gabe utzi: 2009 urtearen hondarrean eman zuen argitara Anjel Lertxundik *Eskarmentuaren paperak* baina oraindik orriotara ekarri gabea genuen. “Saiakera” hitza irakurri dugu liburuaren azalean, baina zilegi zaigu esatea harago doala Lertxundiren ahalegina liburu honetan. 40 urteko ofizioari errepasoa eman

dio testu laburren, hausnarketan eta oroitzapenen bidez. Autobiografia? Dietarioa? Oroitzapen liburua? Denak batera akaso? Liburu hibridoa da Lertxundiren azkena. Bere buruaz ari da idazlea, baina helburua ez da bere burua. Urte hauetan guztietan bidaide izan duen irakurleari mintzo zaio. ■



Eskarmentuaren paperak.
Anjel Lertxundi.
Alberdania.
289 orr. 18 euro.

‘Idatz & Mintz’ en zenbaki berria

Labayru ikastegiak argitaratzen duen *Idatz & Mintz* aldizkariak 49. zenbakia publikatu du. Ohiko moduan artikuluak ugari eta gaiak askotarikoak: Adolfo Arejitak Gabriel Manterola abade kazetariari buruz idatzi du; Iratxe Ormatzak eta Amaia Iturbidek ipuin bana paratu dute; Joseba Aurkenere-nak Axularren hobia ekarri du gogora; Karmelo Etxenagusia ere gogoan izan dute haren lagunek; Jabier Kalzakortak Añibarroren errefrac bilduma bat plazaratu du; Miren Ibarluzeak berriz, Bizkaiko koplak batzuk; Iñaki Sarriugartek 1935eko Bertsolari Txapelketa Nagusia izan du gomutan, eta bertan bizkaitarrek egindako lana; bukatzeko, Sebastian Gartzia Trujillok poesia sinbolistaz jardun du. ■



Idatz & Mintz 49.
Batzen artean.
Labayru.
85 orrialde.
5,90 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Ze esatek.
Ze esatek.
Baga Biga.
Iraupena: 52'20".
11 euro.

Jai giroaren askotariko koloreak

GIPUZKOAKO musikari multzo zabal batek osatutako talde honek ez du atsedetik hartu aspaldian; uda osoa jo eta su dabil plazaz plaza kontzertuak ematen. Hainbat musika proiektutan trebatutako musikariek osatzen dute, eta estilo ugari jorratzen dituzte kanten-tan, haizezko instrumentuek eta txalapartak lagunduta. Hain zuzen ere, ska-rocka dute oinarri, baina horri euskal folka, rapeatuak, ukitu latinoak, ragga-

mufina eta funky apur bat ere gehitzen diete, emaitza anitza lortuz. Jai giroko taldea da, ez dago inongo zalantzarik, jendeari bizi-poza ematea baitute helburu nagusienetako bat; baina pentsaraztea ere lortzen dute, entzulearen erreakzioa lortzeko. Euskaraz abesten dute, baina bada ondoko "bizilagunei" eskainitako bat gaztelaniaz.

www.myspace.com/zeesatektaldea

Ze Esatek

«Abestiak hobeak izateko ez dago zertan hamaika ukiturekin jantzi»

"Ze esatek". Jendeari hitza eman nahi diozue edo pixka bat probokatu?

Hasieratik izan gara talde zirikatzaile. Umore ukitua ematen diegu askotan abestiei, nahiz eta serioak ere badiren. Izena Azpeitiko seme Unai Frantsesenari hartu genion.

BFS, Beti zutik... Hainbat kantatan estilo eta sonoritate asko batzen dituzue. Zer harrera dute?

Gustuko dugu estiloekin jolastea, asko gara taldean eta bakoitzak bere jatorria dauka. Iturri guztietatik edaten saiatzen gara eta BFS-k emari berezia dauka. Erritmo astunak, diskoa, funkya, falsetea... Euskal Herrian oso harrera ona dute, Katalunian ere bai, eta espero dugu abenduan Kuban ere hala izatea.

"Iraganaren ordainetan bizi dugu oraina". Zer ikasi duzue izan dituzuen proiektuetan?

Gauzak sentitu ahala egin behar direla. Abestiak hobeak izateko ez

dago zertan hamaika ukiturekin jantzi, azkenean kalitate hori erabat subjektiboa da-eta. Gauza asko uste duguna baino sinpleagoak dira.

ogibideak bizipoza ematea behintzat.

Zu gabe hit bat izango da zuzenekoetan, ezta?

Kontzertuetako momentu berezi horietako bat izan ohi da. Melodia entzuten hastean, jendeak abestu egiten du guk jo gabe. Nabaritzen da askok gustuko duten abestia dela eta bideoklipak dagoeneko 25.000 ikustaldi ditu Youtuben.

Jai giroko taldea izanik, edanaren gaineko autokritika egiten duzue?

Autokritika positiboa da. Gauza gehienak monotonian erortzen direnean aspergarri bihurtzen dira; afera zirrara berriak bilatzean datza, sentsazioak, bizipenak... Parte-hartzea, erabakitzea, iritzia ematea... eta ez ematen digutena barneratzen dugun irizpiderik gabeko morroi bihurtzea. ■



"Etorkizuna festa delako eta ajea iragana, lana parranda bihurtzea da parranda honetako lana". Erraza al da?

Gero eta zailagoa, baina polita litzateke bizipoza ematen dizuna ogibide bihurtu ahal izatea edo

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

'Iduzkillore' antzezlanaren 3an Domintxinen



EKAINEAN sei aldiz jokatu dute *Iduzkillore* antzezlanaren, eta izandako harrera ikusirik, beste saio bat prestatu du Kitzikazan/k taldeak irailaren 3rako. Domintxineko salan izango da, arratsaldeko zortziak eta erdietan. XVII. mendeko Euskal Herrira eramango gaitu obra honek. 1609an gaude: Bordeletik zaldi karro batzuk abiatu dira Baionarantz, parlamentuko zenbait

kide eramateko, tartean Pierre de Lancre. Izua eta herioa Lapurdira iritsiko dira De Lancre gurditik jaitsi bezain pronto.

Bizkaiko Aldundia Bastida eraikina babestearen kontra

EUSKO JAURLARITZAK Sukarrietako Bastida eraikina babesteko prozesua abian jarri du eta lehia sortu da erakunde autonomikoaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean. Eremu horretan kokatzen zen Aldundiak egin gura duen Guggenheim berriaren proiektua, eta ondorioz, Bizkaiko Diputazioak alegazioak aurkeztu dizkio zonaldea babesteko prozesuari. Jaurlaritzak sustatutako babes-prozedura bururaino eramanez gero, Bastida eraikina Euskal Kultur Ondarearen zerrendan sartuko litzateke, eta beraz, Aldundiak ezingo luke Guggenheim berria eraiki.

Juan Berrozperen lanak ikusteko aukera izango da Gasteizko Ikusiarte Galerian irailaren 16a bitartean. Hainbat sari irabazi ditu artista donostiarrak orain arte egindako ibilbidean eta, Gasteizko erakusketan, hiriko paisaiak erakusten dituzten lanak dira nagusi.

Atom Rhumba, Chico Boom eta Mantis taldeen kontzertuekin abiatuko da irailaren 10ean Donostikluba Zirkuitua. Hortik aurrera, hainbat talde ariko dira Donostian irailean eta urrian: Damien Jurado, Standstill, Morodo, Klaus&Kinski... Elektronikatik reggaera estilo ugari uztartuko dira, urtetik urtera indartzen ari den programan.

Euskal Kultur Erakundeak Gure Munduak izeneko webgunea sortu du (www.guremunduak.com). Interneteko leku horretan erabiltzaile bakoitzak espazio bat sortzen du eta bertan argazki-albumak gehitu ditzake. Xedea, euskal mundua argazkien bidez eta modu parte-hartzailean sareratzea da.

● **Borja Cobeaga** zinema-zuzendariak **Noticias de Gipuzkoa** egunkariari **esanak**: «Badago lotsa moduko bat komedia egiterakoan, izan ere, drama egin eta jendeak ez badu gustuko, berdin da, baina komedia egin eta ez badute barrerik egiten patetikoak da. Umorearen galera nabarmena dago gaur egungo zinemari. Lehen, pelikula guztietan, baita pelikularik serioenetan ere, umore apur bat zegoen; orain, ordea, ez. Umorezko zerbait egitea badiro ez dela hain garrantzitsua eta hain serioa».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Amets hau ez da erabat sinesgarria

Inception (Iparraldean: *Origine*; Hegoaldean: *Origen*).

Zuzendaria: Christopher Nolan. Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Marion Cotillard, Cillian Murphy, Ellen Page, Ken Watanabe. Erresuma Batua-AEB, 2010. 142 minutu.

HAMARKADA HONETAKO *Matrix*: berba horiekin deskribatu dute, estreinatu eta berehala, Christopher Nolanen *Inception* filma. Eta zenbait aspektuk zilegi egiten dute konparazioa, esaterako, Wachowski anaien mundu birtual informatikoak eta Nolanen pelikuletako ametsak, biek paratzen digute galdera bera sudur aurrean: benetakoa al da bizi dugun mundu hau? Errepresentazio hutsa ez ote?

Dom Cobb (DiCaprio) ideia-lapurra da. Korporazio handien enkarguz lan egiten du, kontrako enpresaburuak ametsetatik sekre-



tuak ebasten. Baina huts egingo du filmaren hasieran, ezingo du Saitoren (Watanabe) kaskotik behar zuen informazioa atera eta orain enkargua egin dion enpresak sator artera bidali nahi du. Irteera bakarra Saitok berak eskainiko dio. Lan-txo bat dauka Cobben-

tzat: Maurice Fischer handi-mandia hiltzorian dago eta haren semeak aitaren inperio ekonomikoa bertan behera uztea lortu behar da. Fischer gaztearen (Murphy) ametsetan sartu, eta ideiak ostu ordez, berriak sartu. Cobbek ordea, problemak ditu bere subkontzientearekin; hildako emaztea agertzen zaio eta ez dio lasai lan egiten uzten.

Lehengai horiekin Nolanen emaitza luzea atera zaio minututan. Beharbada filmeko tiroketa eta ekintza-eszena batzuk kimatuta eramangarriagoa izango zen, baina, dena dela, *Inception* ez da astuna egiten ikusteko. Ez da hori filmaren alde ahulena.

Daukan akatsa da, xedea zortzimilakoan jarri ondoren, Hiru Erregeen Mahaiaren tontorrean geratzen dela; ez da gutxi, baina ez da gauza bera. Seguruenik, *Matrix*en aldean, beste mundu horren –kasu honetan ametsen– egiantzekotasuna zaintzeko lan gutxiago egin delako. Ez da zientzia-fikzioa bete-betean besarkatzen duen lana, baina hala ere gauza batzuk esplikatu ezean zintzilik geratzen direla esango nuke. Adibidez, ez zaigu azaltzen nola funtzionatzen duen besteren lozorroan sartze horrek, nola kontrolatzen duten lapurrek beraien burua lasai lan egin ahal izateko; eta ametsetan daudenean ere, kaleak, pertsonak, solasak... dena “errealegia” egiten da, urrun dago mundu onirikotik. A, eta bukaera efektistak ez dio mesederik egiten pelikulari nire irudiko.

Halere, ikusteko modukoa da, sikiera oporrak bukatu diren kontu hori ametsa besterik ez dela pentsatzeko. ■

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20
20003 DONOSTIA

© 943 423 424 • Fax: 943 424 424

urola@restauranteurola.com


www.restauranteurola.com



Ihesi

IÑIGO ARANBARRI

Argazkiak: Dani Blanco



Euskal Herria ezagutuz:
Azkarate-Lastur (Gipuzkoa)

Sakabiren oinen arrastoan

Oinak urratsari bezala ikasi dio bidea, denborarekin eta hemen ere, errepideak zidorrari. Orain ez aspaldira arte oinez-bidea zen Deba eta Urola arroak, Azkoitia eta Elgoibar-Mendaroak, Lastur eta Itziar Azkarate gainarekin lotzen dituen errepide hau. Bideak elkartzen zituen etxeak; jendea elkartzeko egin izan dira bideak. Eta Izarraitz magalean barrena doan bide honek asko ditu istorioak. Bakarra ekartzearen: bide honetatik sartu zen Bizkaiko trikitixa Gipuzkoan.

JENDE-BIDE HAU hartzen zuen, konparazio batera, Faustino Azpiazu “Sakabi”-k, orduan Eibarren bizi zen Elgetarengana joateko soinu txikia ikastera. Gerra atarian gaude, eta ordu eta erdiko bidea dago oinez sortetxe duen Sakabia baserritik Azkarate gaineraino. Han autobusa hartu eta Elgoibarrera. Elgoibarretik trena Eibarrera.

Eibarretik etxerakoa bueltan egiten zuen bakoitzean, berriz, mundua zen bizkarreko soinu txiki hartan zetorrena: pasodobleak, foxak, tango aireak. Eta noski, fandangoak, porrusaldak, arin-arinak, trikitixak. Bi ordu eta erdiko bidea bi entsaio egiteko Untzaga plaza ondoko apopilo etxe bateko gelan. Eta beste horrenbestekoa arratsaldeko seietako trena hartuta, bidea desibiltzen etxera itzultzeko. Soinua bizkarrean beti.

Afizioa, esango zuen. Afizioa.

Afizio berak bultzatu zuen urte batzuk lehenago Madariaga auzora. Han erakutsi zizkion Jose Manuel Aranbarri “Madarixa Txikixe”-k lehenbiziko piezak. Eta Azkoitiak

eta Elgoibarrek banaturik duten Madariaga izan da zerbait trikitixarentzat. Plaza ona izan da. Mundua bildu izan da dantzara bertan. Soinujoleak Azkoitia partean. Baltseorako bildutako jendea, Elgoibarkoan. Tartean, “duintasunaren eta ohitura onen” paraleloa zaintzen, aguazila. Arrazoiak: soinujoleek lotua jotzen zutenean, Elgoibarren libre zela dantza, eta Azkoitian ez. 1955era arte iraungo du debekuak, Azkoitian Zubillaga fundizioko lehen harria jarri zela ospatzeko Pedro Alberdi “Peron Txiki” alkateak baimena eman zuen arte. Ordainetan, erreto-reak udalak zuen aulkia erretirarazi zuen parrokiatik.


Madarixatik gora Aittola

Gaur egun ez da trikiti-doinurik Madariagan. Urteak dira frontoi aurrean ziren benta biak itxi zirela. Taberna berria zabaldu zen orduan. Giltzatuta dago hura ere. Salda eta haragi egosiaren usain beroak hoztu ahala joan dira jende-hotsak. Zorte pixka batekin, norbait ariko da bi frontoietako batean. Eta

oinezkoak baino, automobilak dabilta gora eta behera, Izarraitze- ra doazen mendizaleenak asko. Beste toki frankotan bezala, iraganaren itzalak baino ez ditu aurkituko bertaraten denak.

Bidea dugu Sakabiaraino, ordea. Madariagatik gora, aldapa dago Aittola gaineraino. Ostatua han dago orain, Azkoititik abiatuta Olason barrena datorren pistak Otarre-rakoarekin bat egiten duen gurutzean. Gure bidea gorakoa da, ez dira aparte aurreneko pagoak eta artzain txabolak. Baina merezi du Otarrerantz desbideratzea, Larras-kandako putzuaren ondoan, antena bidean diren harri zabalak ikusteko besterik ez bada ere. Lurrean landatuak, bi metrotik gorakoak batzuk, itxitura ikusgarria osatzen dute harri lauza ederrok. Ez da ohikoa horrelako egiturak ikustea kostaldeko mendialdean.

Egindakoa desibili beharra dago, lehengo bidera iristeko osteria ere. Konturatu orduko hartuko dugu gaina. Begiek zerua jotzen dute, eskubi aldean lagun elkarte bihur-



Eskubian, goian: Aittolarako bidean dago ostatua, Azkoitik etorrita Olason barrena datorren pistak Otarrerakoarekin bat egiten duen lekuan. Eskubian, behean: elurzuloa Arrateko-sakonaren inguruetan. 80 urte dira bertan inor ez dela ari lanean.

tutako txabola bat ageri da sakonaren sabelean, eta ezkerrean, putzu bat. Marikutzen zaude, eta egin beharra duzu. Hartu harri bat eta bota, zeharka dezala aire garbia, ahalegin-putzuaren beste aldera iristen. Alferrik. Sakabik bezala, bide honetatik igaro diren gizon-emakumeek urteetan egin duten bezala, botako duzu, indarrez sobran jaurti ere, baina ez zara beste muturrera helduko. Neur ezazu oina erabiliz: 75 urrats da luze. Putzua zaintzen, gainez gain, Neolitikoko bitumulu, 1958an aurkitu zirenak zientziarako. Ele zaharrek diotenez, harriak beharrean ontzurreak botatakoak badira, orain norbaitek jaso zain daudenak Marikutzeko lokatzetan, urpean ehortziak.

Ezin aitzurtzan gelditu baina, Sakabiren oinen urratsean dabilena. Zuhaitzen itzala gertuago dugu hemendik, igaro dugu Zorroze beltza, begiak betetzera datorkigu Izarraitzen

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak
- eta askoz gehiago...



- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Senderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho mas...

www.inguruabentura.com

info@inguruabentura.com

Tel: 635 748 948

San Juan 18
Albeniz - Asparrena
Araba





ederra. Duela urte batzuk egin zutenetik, automobilentzako parking batek itsustu du ingurua. Hemen uzten dira lau gurpilak Erlori, Xoxoteri zein Kakutari neke handirik gabe ekiteko. Pasiera bat baino ez da Aittolatik.

Lasturrera bidean

Eta errepideak errekaren bila egin ten duelako hemendik aurrera, lasaitua hartuko zutela datorkit Sakabiren hauspo-oinek Eibartik bueltan. Aittolako gurutzea atzean utzi eta Mugarriko zabalgunean gara. Hamaika aldiz jo zuen Saka-

bik bertako txabolako teilatu gainera igota, eta Egañazpi zuela lagun, Sanjuanetan edo Korpuseko Oktabetan. Denbora bestela neurtzen zen garaiak ziren. Ez da orain, nahita ere, erromeria haien itzalik. Beste batzuk dira orain mendiko jendearen dibertsio moldeak. Urratu dira orduko abarketak, abarkak eta zapatak. Trikitixa hori izan baita hemen bidean lagun daramatzagun itzalentzat, ondo pasatzeko, egunero martxa hausteko, harremanetarako bide, ez besterik. Elizak jazarria, folklorismotik urrunago ezin, bizi-poza aurrena.

Segitu beharra dugu, ordea. Zuloan da Aittola Zahar. Zuloago Soldadusoro, Goltzibar eta Sastarrain. Han da Ekain. Aurrean ditugu Izarraizko tontor menoxtuak, hain antzekoak biak non jendeak nahastu ere egiten dituen, Sesiarte eta Agido. Karehaitz gordinezko, igoera korapilotsuagoa Agidok. Mendizalerik gabeko labirinto harritsuan, Arrateko-sakonako pagoen usainean, bada bisita merezi duen elurzuloa. Haren txapelik gabe, ez da Xoxotekoa bezain ikusgarria, baina 80 urte igaro arren azken langileak joan zirenetik, ez da zaila egiten oraindik norbait sumatzea, elurra zulootan gordeka neguan, udan Zestoara jaisteko, bainuetxean udatiarrek izozki freskoa har zezaten.

Laster gara Lasturren. Moxalak agertuko zaizkizu bidera, ardiak abaro bila uda sargoritsuan. Lehenago, Aittola Berritik igaroko da errepidea, ordea. Hemen egin zioten omenaldia 1962ko abenduan Arbizkua bailarako lagun eta senideek Sakabiri. Bazkalostean, dagoe-

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAK UTZIA



Argazki honetan, eskubian ageri zaigu Faustino Azpiazu Sakabi. Penderoa jotzen ari dena, berriz, Joxe Mari Urkola Egañazpi da.



nik eta piezarik luzeena jo zuen honek, *El sitio de Zaragoza*. Bukatu orduko, aldamenetik Pedro Gelatxok: “Joko al zenuke berriz?”. Eta Faustino berehala erantzuna, “bai soinuari ezer galdu ez bazako”.

Aittola Berritik bertan, eskubira hartuta, hahor Sakabia baserria. Hor jaio zen Faustino Azpiazu, eta bertan bizi Azpeitira ezkondu zen arte. Bide asko heltzen zen sasoi batean Sakabiara, beharrak eraginda. Sakabian medikuek ezin senda zezaketena sendatu izan baita belaunaldiz belaunaldi belarrez eta ukenduz, tifusa eta pulmonia batez ere, baina baita erreuma batzuk ere. Ezkutuan egin beharreko bidea beti ere, salaketen beldur.

“Zer Faustino, belarrekin-eta hasi nahi?”.

“Ez, nik soinua”.

Lastur, mundua

Eta soinu txikiak Lasturrerako izan du joera Sakabian. Errekak lagun-duko zaitu bertaraino, larre-behiak izango dituzu begira. Argazki zaharrei hizketan uztea bezalakorik ez dago. Sanikolasetan ez bada inauterietan, beti izan da erretratuak ateratzeko ohitura Lasturko plazan. 60 urtetik gora igaro dira kamera aurrean jarri zirenetik. Bakanen batzuk izan ezik, joanak dira guztiak. Bailarako neska-mutlak indar betean ageri dira argazki-paper zahartuetan, gorbata, gona luze eta abarketa zuri, dotore jantzita beti. Tartean, denborarekin jolas egiteko gai zen gizon bakarra: soinujoalea. Batean Jacinto Rivas, Elgeta agertzen da. Bestean, Gelatxo zaharra. Ia beti, bertakoa egiten zen Faustino Azpiazu, Sakabi. Horra Bizkai-

ko trikitixa Gipuzkoan sartu zuen hirukotea Lasturren.

Donostiarentzat, probintziako Far Westa izan da hau guztia orain ez aspaldira arte. 1970eko irail hartan Trinitade plazan Trikitilarien I. Txapelketa egin zenean, sei bikote aurkeztu ziren bertara, Urolaldekoak seiak. Sakabik eta Egañazpik eraman zuten saria etxera. Orain Donostiatik, Bilbotik eta nonahitik ateratako autobusak heltzen dira astebururo Lasturko plazara, bertan bazkaldu eta larre-behiekin jolas egin nahi duen jendez beteak. Parke tematikoak sortu ditugunetik, bestela tratatzen gaitu denborak. Bidea amaitu dugu. Non dauden itzalok, ez dakit, baina ez da zaila, gogoia jarrita, haien hotsak entzutea mendi barren honetan euri langarretan bideotan zabiltzala. ■

ZUMALABE HOTELA



Portuko bidea, 2 · Mutriku (Gipuzkoa) · Tel. 943 60 46 17 · www.hotelzumalabe.com

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Serengetiko migrazioa arriskuan

URTERO EHUNKA MILA gnouk, zebrak eta gazelak Tanzaniako Serengeti parketik Kenyako Masai Mara-ra migratzen dute. Migrazio hori ikusteko milaka turista hurbiltzen dira ingurura, eta horrek eragin handia izaten du bertako ekonomian.

Berriki, Tanzaniako lehen-dakari Jakaya Kikwete-k ipar-ekialdean dagoen Arusha hiria eta Victoria lakuaren ertzeko Mudoma hiria autobide batez elkartu nahi dituela adierazi du. 480 kilometroko autobideak ez luke aparteko aipamenik mereziko, bere baitan arestian aipatu migrazio-bidearen zati bat hartuko ez balu; 50 kilometro inguru hartuko dizkio autobideak migrazio-bideari, eta horrek hautsak harrotu ditu kon-terbazionistengan eta turismo-etxeetan.

1.300.000 animaliak egiten dute migrazio erraldoia, eta uste da autobidea eginez gero 200.000 ingurura murriztuko litzatekeela kopuru hori; turismoa ere antzeko proportzioan jaitsiko litzateke.

Zer egin? Tanzaniako lehen-dakariari otu zaiona zera da: migrazio bideak hartzen dituen autobidearen 50 kilometroak asfaltatu gabe uztea. Eztabaida zabalik dago!



SRT84

Ozono geruzaren eboluzioa behatzeko web orria

Joan den mendeko 80ko hamarkadan ohartu ziren zientzialariak Antartikako ozono estratosferiko mailak, hainbat kutsatzaileraren eraginez, oso jaitsiera garrantzitsuak izaten zituela negutik udaberrira igarotzean. Ondoko helbidean jarraitu daiteke egunez egune-ko eboluzioa.

<http://ttiki.com/16013> (Ingeleseaz)

Euskal Herriko ur edangarri maila, egokia

Uda amaitzen ari dela-eta une egokia izan daiteke Euskal Herrian dugun ur edangarri kantitateari begirada egiteko. Ondoko bi helbideetan aukera dago horretarako; bata Ipar Euskal Herriari dagokio, eta bestea Hegoaldeari. Badirudi maila egokia dutela gure urtegi guztiek.

<http://ttiki.com/16014> (Gaztelaniaz)

<http://ttiki.com/16015> (Frantsesez)

Malariaren aurkako gerra luzea


Malaria transmititzeko gai diren eltxoak existitzen diren bitartean, jai dugu! Filosofia horrekin ari dira lanean ikerlariak eta Arizonako Unibertsitatean, AEBetan, ingeniari-za genetikoaren alorrean lortutakoaren berri ematen digute hurrengo loturan.

<http://ttiki.com/16016> (Gaztelaniaz)

Partxe bidezko txertoak

AEBETAKO EMORY UNIBERTSITATEKO eta Georgiako Institutu Teknologikoko ikerlari talde bat txertoak jartzeko sistema berriak probatzen ari da, eta badirudi emaitza onak lortu dituela. Hain zuzen ere, azalean disolbatzen diren mikro-orratzez osaturiko partxeak probatu dituzte arrakastaz. Partxeek 100 orratz dituzte, bakoitza 650 mikrometrokoa (mikrometroa metroaren milioi-rena da). Orratzak disolbatu egiten dira azalean eta horrela gorputzera igarotzen da txertoa.

Era horretan jarritako txertoak ez du espezialistarik behar, edonor izan daiteke txerto-jartzailea. Beraz, pandemia kasuetan abantaila nabarmenak izan ditzake orratz hipodermikoz emandako txertoekin alderatuta. Baina abantaila terapeutikoak ere baditu, gorputzean geratzen den memoriak askoz gehiago irausten baitu txerto tradizionalekin baino.



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hagintea

ABUZTU AMAIERAKO bero saldak soildu ederra eman dio lantokiko atarian gaituen intxaurrondoari. Ihartzearen bihurrituaren bihurrituaz orbeldutako hostoak hego haizearen dantzari politak dira belar gainean. Eta imajinak poesia dakar burura, P.D. Jamesen *Death in Holy Orders* nobela ederreko puska poetikoa; neure gutxi gorabeherako lasaian honela dio: “Etxarte erdian, indi gaztaina zaharkitu batek udazkeneko hondamenaren hasiera erakusten zuen. Zarakar itxurako azal puskak galtzen zituen enbor bihurriaren oinean, udaberriko puntta berrienak bezain hosto samurrak eta berdeak zituzten sortu zaharrak ez ziren altsumek. Gorago, adartzarrak hori eta marroiz jantziak, eta hosto iharrak, hatz momifikatuen gisara, ximel eta hauskor ageri ziren kaobakolore distiratsuzko gaztaina artean”.

Hosto iharrak tankeratsukoak, baina egurrean indi gaztainak (*Aesculus hippocastanum*) eta intxaurrak (*Juglans regia*) badute aldea, alde nabarmena. Hark egur biguna, samurra, makala du, honek aldiz, gogorra, iraunkorra, trinkoa.



Hagina (*Taxus baccata*).

© MATTHIEU SONTAG, CC-BY-SA, WIKIMEDIA COMMONS

Intxaur zura beltz ordaintzen da, eta beltza bada gehiago, beltzago. Beltza baino beltzagoarik ba ote da, bada? Bai alazankua! Gorria da beltza baino beltzagoa, haginaren egur gorria.

Hagina, *Taxus baccata*, intxaurre baino milaka urte lehenagotik gurtu dugu, eta lizarra eta artearekin batera gure atarietako zuhaitz magikoa izan da. Milaka urte bizi ohi da eta aldamean duen etxeko odolaren historia aberatsa eta etorkizun oparoa adierazten du. Intxaurrea geurera ekarri zuten erromatarrek, diruak dena erosten duela erakutsi ziguten. Eta beltz edo gorri eskatuegatik, ordaindu eta desagertuak dira gure haginaga onenak, baita atari-aurretako

bakanak ere. Gure historia eta etorkizuna salduak. XVI-XVIII. mendeetan Ingalaterrara burdina saltzez gero, hagin enborrez lagunduta joan behar zuen, armadak behar zituen arkuak egin ahal izateko. Diruak akabatu zuen garestiena. Eta geuk galdu agintea. Hala hagintea idatzi beharko genuke? Agintea hagin sakratutik datorrela idi-parea jokatu nuke!

azkonobieta
basogintza lanak

baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Argizarizko paparazzia

ESTRASBURGO, 1761EKO ABENDUAREN 1A. Anne Marie Grosholtz, gero Marie Tussaud izenez ezaguna izango zena, jaio zen. Aita bi hilabete lehenago hila zen, Zazpi Urteko Gerran, eta ama Bernara joan zen bizitzera alabarekin batera. Oso gazte hasi zen Philippe Curtiusen etxean lanean. Curtius medikua zen eta anatomia irakasteko argizarizko irudiak egiten zituen. Gero argizarizko erretratuak ere egiten hasi zen.

1765ean medikua Parisera joan zen eta argizarizko figuren erakusketa prestatzen hasi zen. Urte hartan bertan Louis XVI.aren amorante Madame du Barryren erretratua egin zuen, gaur egun oraindik erabiltzen den molderik zaharrena. 1767an Grosholtz eta ama ere Parisera joan ziren Curtiusen babesean. Lehen erakusketa 1770ean zabaldu zuen hark, eta arrakasta handia izan zuen.

Grosholtz argizaria modelatzen trebatu zuen Curtiusek. Talentua lagun, haren laguntzaile izan zen eta 1778an argizarizko bere lehen figura osatu zuen, Jean-Jacques Rousseauena. 1780tik aurrera Louis XVI.aren arrebaren arte irakaslea izan zen eta berehala Versaillesen bizitzeko gonbitea egin zioten. 1789an

Frantziako Iraultza piztu zenean, Grosholtz errege jauregian bizi zen.

Frantziar monarkiarekin zeukan lotura zela eta, Izualdian atxilotu zuten. Lepoa gillotinatik oso gertu izan zuen (buruko ilea ere kendua zioten). Baina argizariarekin zuen trebeziak bizia salbatu zion; gillotinarren biktimen maskarak egiteko agindu zioten. Hala, Louis XVI.aren, Marie Antoinetteren, Maraten eta Robespierren hil ondorengo argizarizko erretratuak egitera behartu zuten.

Curtius hil zenean, 1794an, bilduma Grosholtzeri utzi zion. Ezagun bihurtuko zen abizena, aldiz, urtebete geroago eskuratu zuen, François Tussaudekin ezkondu zenean. 1802an Londresera egin zuen bidaia eta, Napoleonen gerrak medio, ezin izan zuen Frantziara itzuli. Urtetan bere bilduma Britainiar Uhartertan erakutsi ondoren, 1935ean Londreseko Baker Streeten erakusketa iraunkorra jarri zuen.

Madame Tussaud 1850eko apirilean hil zen, 88 urte zituela. Haren izena daukan museoa Londresko gune turistiko nagusietakoa da gaur egun eta adarrak ditu munduko hiri askotan.

WWW.PANORAMIO.COM



WWW.WEBSHOTS.COM




Ezkerrean, Marie Tussauden argizarizko irudia; eskuinean, Luis XVI.aren sendiarena; Frantziako errege-erreginei, gillotinatik pasa ondoren ere, argizarizko irudiak egin zizkieten.

Arrastoak

Darwinen etxean zotza burruntzi

ARAZO GENETIKOENGATIK hil ziren Charles Darwinen hiru seme-alaba, Santiagoko eta Ohioko unibertsitateetako hiru ikerlarik argitaratu berri duten azterketak dienez. Paradoxikoki, zientzialariak aztertutako odol-kidetasun legeek bere sendian eragina izan zuten. Darwin bere lehengusin

Emma Wedgoodekin ezkondu zen, eta hamar seme-alabetatik hiru oso gazte galdu zituen. Oinordekoen osasun ahula arrazoi genetikoaren ondorioa zela susmatu arren, ez zuen frogatu ahal izan. Orain, *Bioscience* aldizkarian argitaratutako ikerlanak arrazoi zuela dio.



WWW.WIKIMEDIA.ORG

Alicia Perez

Itzulpengintza automatikoan aditua

«Kostuak jaisten saiatu behar dugu, itzultzaileentzat erremintak sortuz»

EHUko Donostiako
campusean Sistemen
Ingeniaritza eta Automatika
Sailean irakasle da. Leioan
berriz, Elekrika eta
Elektronika Sailean ikerlari.
Harrituta dago kazetariak
bere tesiari buruz galdetu
diolako. Lehen ere hurbildu
zaizkio hedabideetatik eta
interes hori arraroa egin zaio.

ONINTZA IRURETA AZKUNE
Argazkiak: Dani Blanco

ESAN DIOGU, bere alorra ulertzeko zaila den arren, itzulpengintza automatikoa badela gai interesgarria, hizkuntza gutxituentzat adibidez. *Speech and text translation involving basque language: application of stochastic finite-state transducers* izeneko tesia egin zuen, zer ikertu duen galdetu diogu: “Makinak itzulpenak egiteko metodo desberdinak ditu. Nik metodo estatistikoa darabilt. Euskaraz zentratu naiz, baina berez, estatistikak edozein hizkuntzatik edozein hizkuntzara egitea ahalbidetzen du. Metodo horrek hitzak etiketak edo zenbakiak bailiran tratatzen ditu, lehenengo hitza a hizkuntzan eta bigarren hitza b hizkuntzan. Dena dela, okerrago edo hobeto



“Hogei urte pasa dira eta ez dugu lortu hizkuntza batetik bestera natural eta zuzen itzultzea. Apurka ari gara”.



“Estatistikak, euskara eta gaztelaniaren arteko itzulpenetan, azkenean txapuza egiten du, oso-oso hizkuntza desberdinak baitira. Zerbait egiten du, baina gutxi, oraindik bere ahalmena nahiko murrizta da”.

ibiliko da sistema, hizkuntzek euren artean duten hurbiltasunaren edo urruntasunaren arabera. Estatistikak, euskara eta gaztelaniaren arteko itzulpenetan, azkenean txapuza egiten du, oso-oso hizkuntza desberdinak baitira. Zerbait egiten du, baina gutxi, oraindik bere ahalmena nahiko murrizta da.

Estatistikarenaz gain, badira beste metodo batzuk itzulpengintzan, eta nahastu egin ohi dira.

Bai, hori da gaur egungo joera.

Baina estatistika aukeratu duzu.

Bai. Ametzagaiña Taldea itzulpen

memoriekin ari zen eta estatistika sartu nahi zuen proiektuan. Eurek lagundu ziguten itzulpen unitateak –izen sintagmak, adibidez– identifikatzen.

Beraz, alde linguistikoa eta estatistikoa nahastu dituzu.

Itzulpen unitateak identifikatu nahi genituen, baina metodo linguistiko-en bidez. Metodo estatistikoen bidez esaldiko subjektua, aditza eta bestelako elementuak identifikatu daitezke. Alabaina, metodo estatistikoei bere logika erabiliz egiten dute zatiketa hori: iruditzen zait honaino dela partiketa. Ondo,

baina guk partiketa metodo linguistikoak erabiliz egitea nahi genuen, alegia, unitateak segmentatzea metodo linguistikoaren bidez.

Eta horretarako Euskalmeteko eguraldi iragarpenen lagina erabili zenu-ten.

“Zerua oso hodeitsu egongo da arratsalde partean kostaldean eta mendietan aldiz...”. Horrelako laginak hartu genituen. Alor mugatu baterako aplikazioa da nik landutakoa, eta helburua da aplikazio eremu apurka-apurka handitzea. Baina, hau hasiera baino ez da.

Hori galdetu nahi nizun. Batzuetan badirudi itzulpen automatikoa asmatuta dagoela, hedabideek kontatzeko duten moduagatik, adibidez.

... agerian dago ezetz, bestela denok erabiliko genuke mugikorren! Ez, ez dago asmatuta.

Nola transmititzen duzue egiten duzuen lana, noraino iritsi zareten azaltzea, adibidez?

Aspalditik ari gara itzulpengintza automatiko estatistikoan. 90eko hamarkadan AEBetan IBMko taldea sortu zen, eta horrek eman zien buelta aurreko metodoei. Hogei urte pasa dira eta ez dugu lortu hizkuntza batetik bestera natural eta zuzen itzultzea. Apurka ari gara uztartzen metodo linguistikoak eta estatistikoak.

Euskararekin bezala beste hizkuntze-kin ere berdin aritzen dira lanean?

Azken finean, adimen artifizialeko ezagumenak aplikatzen dira, metodo orokorrak dira aplikatzen direnak problema jakin baterako. Nahiko gatz da gure problema zeren ez da matematika, hizkuntza da, oso aberatsa.

Buelta eman diozu, hizkuntza arazoa dela esan beharrean aberatsa dela diozu.

Erronka da, ea zer ekarri ahal diodan hizkuntzalaritzari nire metodo-en bidez.

Itzulpen “perfektua” noiz izango dugun imajinatzen al duzu?

Ez nuke jakingo aurrezaten, adibidez, hainbeste urtetan maila ertain-

neko itzultzailea izango dugu... Google-ek badauka berea, nahiko ona da, baina alor guztietarako aplikagarria al da? Oraindik ez. Hala ere, zientziaren bilakaera oso-oso azkarra da. Garai batean, bospasei urtean inork ez zizun tesia zapaltzen, gaur egun zure gaia urte pare batean zaharkituta geratu da, jende piloa ari da gai horretan.

Jendeak espero du itzultzaile perfektua aurkitzea Interneten, adibidez.

Bai, eta gero bazoaz probatzera eta txarto egiten du, ezta? Biltzarretan eta aipatzen dena da: zuk zer nahiago duzu, Taiwanetik erositako garbigailuaren eskuliburua taiwanera perfektuan egotea edo euskara xumean? Nik nahiago dut ezagutzen dudana hizkuntza egotea, akatsen bat badago ere nahiago dut ulertzea, beste hizkuntza batean perfektua izatea baino. Agerian dago itzultzaileen beharra oso handia dela. Kostuak jaisten saiatu behar dugu, itzultzaileei lagunduko dien erremintak sortuz.

Lagungarri beraz.

Euskalmeteko lagina, euskaraz eta gaztelaniaz geneukan, baina publikatzeko ingelesez behar genuen zerbait. Kontratatu genuen itzultzaileak 14.000 esaldi itzultzeko milioi bat pezeta kobratu zigun, ez da asko. Gure sistemak, entrenatuta zegoenean, 1.500 esaldi zuzentzeko segundo batzuk behar izan zituen. Itzultzaileari pasa nizkion esaldiak eta esan nion, “zuk egin duzun lana nireak segundo batzuetan egin du”. Noski, berak bezain ondo ez zuen egin makinak, baina kalitatea begiratzeko esan nion. Harri eta zur geratu zen, “ez dira zuzenak, baina ulergarriak dira” esan zuen. Aitortu beharra dago segundo batzuetan 1.500 esaldi itzultzea ondo dagoela. Gero, itzul-

tzaileari gutxiago kostako zaio esatea ondo ala gaizki dagoen, zerotik itzultzen hastea baino.

Itzulpen automatikoak egiteko corpus bolumen handiak behar dira eta euskarak ez ditu, era berean dauzka-gun itzulpen memoriak ez ditugu elkarbanatzen. Ondo ari al naiz?

Nondik aterako ditut laginak? Euskaraz publikatutakoa, doan, erraz eta formatu egokian lortzeko moduan... baldintza larregi dira, zaila da.

“Biltzarretan-eta aipatzen dena da: zuk zer nahiago duzu, Taiwanetik erositako garbigailuaren eskuliburua taiwanera perfektuan egotea edo euskara xumean?”

Tesirako enpresa batekin jarri zinen harremanetan. Ohikoa da hemen alor akademikoa eta enpresa elkarlanean aritzea?

Nahiko banatuta egoten dira. Unibertsitatean, batzuetan, ez dakigu ebatzitako problemak praktikan zelan jarri. Gero hor dago enpresa mundua gu gure lekuan jartzeko, “horrek ez du ezertarako balio, gaur egungo gizarteak behar duena hau da”. Oso tesi gutxi daude enpresarekin lotuta. Unibertsitatean ahaztu egiten gara gizartearen beharrez, enpresak berriz lurrean kokatuta daude. Gure proiektua sortu zen enpresa batek eskatuta.

Euskara askoz zailagoa da itzulpengintzarako, berezitasun linguistikoak dituelako, ala hori ez da egia eta arazoa corpus falta da.

Batetik, euskara oso bitxia da mor-

fologikoki, atzizkiak jartzen ditu bata bestearen atzetik eta hitzaren esanahia askotxo aldatzen da. Bes-tetik, sintaxia ere oso bitxia da, gaztelaniaz egiten dena da subjektua, aditza eta osagaiak. Euskaraz ohiko egitura da subjektua, osagaiak eta aditza, eta aditzaren aurretik garrantzitsuena dena. Itzulpengintza egin behar dugunean, bi gauza hartu behar ditugu kontuan: bata, esanahia batetik bestera trasladatzea, eta bestea, gero hitzen orden egokia aukeratzea. Katalanaren eta gaztelaniaren artean ordena nahiko parekoa da, sistemari ez zaio hainbeste kostatzen ordena hori ulertzea, baina sistema estatistikoentzat kristo bat da urrutiko lerrokadurekin lan egitea [euskara eta gaztelania kasu]. Erronka da desberdinak diren hizkuntzen arteko itzulpena egitea.

Euskara eta beste hizkuntza batzuk egongo dira antzeko egoeran, ezta?

Alde horiek kontuan hartuta bai, baina euskarak gainera, baliabide linguistiko gutxi dauka, hiztun gutxi dauka. Baliabide gutxi izanda kalitate bereko gauzak lortzen saiatzea beste erronka bat da.

Alegia, berezitasunetan finlandiera pare da euskara, baina kopuruan finlandierak irabazten dio.

Noski. Orain biltzarretan esaten ari direna da metodo bereziak behar ditugula hizkuntza murriztuak bul-tzatzeko.

Singapurren egon naiz duela gutxi. Egunkarietan parte batzuk txineraz zeuden eta beste batzuk ingelesez. Itzulpengintza egin nahi baduzu hor ez daukazu corpus paralelorik, alegia, hau honen itzulpena da. Gara egunkariaren kasua bera da.

Erronka da hizkuntza batean zein bestean hurbilpen handia izango duten edukiak aurkitzea. ■

Babeslea: HABE

Krisiaren “doikuntzak”

Udazkenean, erreforma antisozial gehiago

Erretiroari eta osasungintza publikoari, PFEZari nahiz langabezia sariei eragingo dieten erreformen ordua iritsi da. Harri bat gehiago, finantza merkatuek defizit publikoa murrizteko inposatutako lan erreforma, funtzionarioen soldatak jaistea, BEZaren igoera edo pentsioak izoztearen ondoren.

DANIEL UDALAITZ

DUELA hilabete batzuk “finantza merkatuek”, Nazio-arteko Diru Funtsak eta Mundu Bankuak, itxuraz defizit publikoa murrizteko, abiatu zituzten krisiaren doikuntzak hasi baino ez dira egin. Lan erreforma, langile publikoen soldaten murrizketa, BEZaren igoera, pentsioak izoztea –datorren urtean hasiko da– eta zenbait inbertsio publikoren etena dagoeneko martxan jarri dituzte. Hala ere, hori guztia ez da nahikoa finantza “otsoentzat” eta doikuntza neurri gehiago eskatzen ari dira zorren ordaina, interes eta guzti, jaso ahal izateko. Horregatik, beti bezala ahulenei eragingo dieten neurri gehiago hartzeko garaia da. Hemendik aurrera eta udazkenean zehar, bete-betea sartuko gara erretiroaren erreforman, eta osasungintza publikoari –koordainketa ezar liteke–, PFEZari eta langabezia sariei eragingo lieketen erreformak ere abia daitezke.

“Doikuntza” eta erreforma horiek salatzeke, Euskal Herrian mobilizazioak eta bi greba orokor burutu dira; bata, Frantziako Estatuan, joan den ekainaren 24an Iparraldeko herritarrei eragin ziena, eta bestea, ekainaren 29an, Hego Euskal Herrian, batetik gehiengo sindikal abertzaleak eta, bestetik,



ren auzia. Orain arte, erretiroa hartzeko adina 65 urtekoa izan da ofizialki, nahiz eta Espainiako Estatuko benetako batez bestekoa 62 urtetan dagoen, erretiro aurreratuen prozesu asko izan baitira 52 urtetatik aurrera, bereziki enpresa publikoetan eta bankan. Erretiroa hartu eta gutxieneko pentsioa jaso ahal izateko, gutxienez 15 urtetan kotizatu izana eskatzen zen. Orain, Toledon eztabaidatzen ari diren erreformaren arabera, langileek 67 urte beteta erretiratzea, hau da, beste bi urtetan lanean jarrai dezaten, nahi dute. Halaber, erretiroa hartu eta gutxieneko pentsioa jaso ahal izateko lan egin beharreko urte kopurua 15etik 20ra igo nahi dute.

Langabezia sariak murriztu

2011tik aurrera defizita murrizteko aztertzen ari diren eta irailaren amaieran onartu beharreko aurrekontuetan aintzat har daitezkeen neurrien artean, langabezia sariak beheratzea dago. Espainiako Gobernuak 2010ean 30.612 milioi euro erabili zituen langabezia sariak ordaintzeko, hemendik 2012ra bitartean murriztea lortu behar duen gastuen –50.000 milioi euro– ia bi heren.

Zantzu guztien arabera, sarien zenbatekoa murriztuko dute. Gaur

CCOOk deitua. Datorren irailaren 29an beste greba orokor bat deitu dute CCOO eta UGT sindikatuek Espainiako Estatuan.

Erretiroa 67 urterekin eta kotizazio handiagoa

Onartzeke dagoen erreforma nagusietakoa eta larrienetakoa, dagoeneko Toledoko Ituna delakoan –Gobernuak, alderdi politikoei, patronalak eta sindikatuei osatua– negoziatzen ari direna da: erretiroa-

Mobilizazioak Ipar Euskal Herrian

Frantziako Estatuan krisialdi sozial ekonomiko eta finantzarioa ez da Espainiako Estatuan bezain larria. Dena den, defizit publikoaren murrizketak doikuntzak eragin ditu, Europako gainerako herrialdeetan bezalaxe. Aurten sektoreko lau greba orokor eta mobilizazio asko jasan behar izan baditu ere, Frantziako Gobernuak erretiroa eta pentsioak erreformatzeko asmoarekin aurrera egitea erabaki du. Halaber, beste neurri fiskal batzuk ezartzea aurreikusten du, Frantziako Gobernuaren erreformak Espainiako Gobernuarenak baino apalagoak izan arren. Erretiroei dagokienez, Frantziako Estatuan orain arte erretiroa hartzeko adina 60 urtetan zegoen. Erreformataren bidez, erretiroa hartzea bi urtez luzatu nahi dute, 62 urtera arte. Horrez gain, pentsioa jasotzeko urte gehiago kotizatzea eskatu nahi dute.

Frantziako Gobernuaren erabakiek berehala jaso dute sindikatuen erantzuna: milioika langile eta pentsiodun mobilizatu dituzte. Frantziako Gobernuaren administraziopean dagoen Ipar Euskal Herria ere eraso neoliberalari erantzuten ari da. Azken mobilizazioa ekainaren 24an burutu zen eta 10.000 pertsonako manifestazio arrakastatsua egin zen Baionan. Hil honetan eta hurrengoetan mobilizazio gehiago izango dira Iparraldean ere. Frantziako Estatu osoan greba orokor gehiago deitzea ez dute baztertu eta, orain artekoek bezala, ziur Iparraldean jarraipen handia izango dutela.

egun langabetuek oinarri erre-gulatzailearen %70 jasotzen zuten prestazioaren lehen 180 egunetan, eta %60 181. egunetik aurrera prestazioaren aldia amaitu arte. Espainiako Gobernuaren asmoa lehen sei hilabete-tan zenbatekoa %70etik %60ra jaitea eta hortik aurrera langabetuak %50 jasotzea da. Sariaren muga maximo eta minimoak berdin geratuko lirarteke: hileko 492 eurotik 1.076,44 eurora, beti ere langabetuak bere ardurapean seme-alabarik ez badu.

18 hilabeteko ohiko prestazioa amaituta babesik gabe gertatzen diren langabetuei ematen zitzairen 430 euroko laguntza ere kentzeko asmoa zegoen. Duela hamabi hilabete ezarri zen laguntza horrek 600 milioi euro inguruko kostua izan du. Hala ere, badirudi neurri horrek zalantzak sortzen dituela Gobernuan. Horregatik, Corbacho lan ministroak, iragan ekainaren 28an, gobernu "babesik gabeko langabetuei ematen zaien 430 euroko laguntzari beste guztien gaintik eusten

ahaleginduko" dela adierazi zuen. Azkenean, espainiar exekutiboak laguntza hori mantentzea erabaki du.

Osasungintza eta PFEZ

Defizit publikoak eta, batez ere, "finantza merkatuen" mehatxuek Gobernuaren estutzen dute eta, horregatik, gobernuak gurai-zeak non sartu bilatzen ari da. Hortaz, osasungintza publikoa "doitzeko" aukera aipatzen eta aztertzen hasi da. Dagoeneko mahai gainean jarri dute sendagaiak koordaintzeko aukera, baita zerbitzua ordaintzen has-teko aukera ere, gutxi izan arren -familiako medikuari egindako bisitako euro bat ordaintzea aipatu izan da-.

Halaber, ziurtzat jotzen da PFEZ ere doitzeko dutela. Zentzu horretan, Ogasuneko Estatu idazkari Carlos Ocañak zera esan zuen pasa den ekainaren 28an: "Espainiako gobernuak PFEZaren doikuntza txiki, apal eta oso mugatua aztertzen ari da" datorren urterako... Beraz, aztertzen ari baldin badira, doikuntza hori ere guzatuko da. ■



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

GAUEKOAK

- **Kontzertua: Harresian zulo**
Irailak 25, 21:30. Artium.
Denboraldiaren hasiera, sarrera dohainik.
- **Gazte klik: argazki digitalen lehiaketa**
14 urtetik 25 urte bitarteko gazteentzat
Gaia: Mestizajea eta gazteria.
Zure begirada zuri-beltzean/koloreetan
Epea: irailaren 30era arte

ATARIA, SALBURUKO HEZEGUNEEN INTERPRETazio ZENTROA

- **Oreinaren orroak Salburuko parkean**
Irailak 24, 20:00-22:00
- **Ezagutu ataria gavez**
Irailak 24, 20:00-24:00
- **Hegaztien Mundu Eguna**
Urriak 3, 10:00-14:00

DANTZA PLAZA

- Irailak 10 eta 17, Espainia plaza, 19:00.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

- **Programa arrunta**
- Herriarrentzat
- **Programa berezia**
- Aisialdiko begiraleentzat
- Eskola kiroleko entrenatzaile edo begiraleentzat
- Aurrekoetarako ikasten ari direnentzat
- Gurasoentzat
- Merkatarientzat (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)

MINTZALAGUNA

Euskara ikasten ari bazara, aspaldian ikasi bazenuen eta ez duzu norekin hitz egin... Hona hemen aukera ezin hobea: Mintzlaguna. Iaz Gasteizen 300 lagun baino gehiagok parte hartu zuten.

Urritik aurrera, animatuko al zara?

Baldintza bakarra, 6. urratetik gorako maila izatea. Bestalde, mintzlaguntzaile aritzeko aukera ere baduzu.

Tel. 692 730 444

mintzlaguna@geugasteiz.com

GIZARTE ETXEETAKO EUSKARAZKO JARDUERAK

- Garaiz zabilta zozketarik gabeko jardueretan izena emateko.

MAITE DUZUN HURA, EUSKARAZ!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

TALAIAN

Finantza merkatuen "irribarrea"

Finantza merkatuek, hau da, kapitalismo basatiak, "irribarre" egiten dute beraien morroiak eta Europako gobernuak hartzen ari diren norabidearen aurrean, batez ere zorpetuen dauden estatuek hartutako norabidearekin. Horien artean Espainiako eta Frantziako estatuak daude. Merkatu horiek irribarre egiten dute, gobernuak defizit publiko eta subiranoarengatik inposatu zizkieten "etxeko lanak" modu atzeraezinean betetzen ari direlako. Apenas dagoen diferentziarik gobernuak, izan eskuindar edo izan sozialdemokrata, "merkatu" horiek asetzeko hartutako neurrien artean. Hor dago soldata publikoak izoztea, baita pentsioak izoztea ere 2011. urtean; hor dago joan den astean Espainiako senatuan onartutako lan erreforma, kaleratzeko erraztasun handiagoa ekarriko duena eta kaleratze horiek merkatuko dituen; hor dago BEZaren igoera... Hor daude Espainiako eta Frantziako estatuak jubilazioaren inguruko eztabaidak, erretreta hartzea atzeratu eta merkatzeko; zain daude zergen igoera eta PFEZaren erreforma...

Oraindik langileen, gizartearen eta herritarren kontrako neurri gehiago hartzeke daude, baina pixkanaka inposatuko dituzte eta ahulenen bizkar gainean jarri. "Merkatu" horiek, irribarrez segitzen dute, badakitelako gobernuak bere egingo dituztela, lehen egin bezala, inposatutako "etxeko lanak". Ez da harritzekoa "Espainia merkatuek gaztigatutako herrialdeetatik aldendu" izana, zeren eta "inbertitzaileen arabera, Gobernuaren doikuntza plan gogorraren ondoren puntuak irabazi ditu". Langile klaseak eta herri sektoreak, duintasunagatik bederen, egoera horri aurre egin beharko liokete, nahiz eta, tamalez, ez den nahikoa izango kapitalismo basatiak bere neurriak inposatzen jarraitu ez dezan. Ase ezinik, "irribarrez" jarraituko dute.

Juan Mari Arregi

"Total, euskara lehenago edo geroago, galdu egingo da"

LAGUN BATZUEN FAMILIAREKIN elkartu gara bazkalatzeko. Amonak ez du euskaraz egiten, gainerakook bai. Mahaian amonari gaztelaniaz egin diot beti, eta nire lagunekin batzuetan euskaraz eta bestetan gaztelaniaz, zalantzatan, amonak zer pentsatuko.

Lagunetako batek bazkal ondoren: "Harritu nau eguerdiko jarrerak, nirekin euskaraz egiten zenuen amonaren aurrean". Eta nik: "Batzuetan bai eta beste batzuetan ez, amonak zer pentsatuko zuen zalantza egin dut, nik ia ez baitut ezagutzen andrea, baina zuri erdaraz egitea izugarri kostatzen zait... —berotzen hasi naiz— eta ze arraio! amonak ulertuko du ba euskara, eta denok, bera ezik, euskal hiztunak gara, eta guk ez badugu egiten..."

Halako batean bota dit: "Total, lehenago edo geroago, guk ahalegina egin ala ez, euskara desagertuko da eta ez du merezi halako lanik hartzerik". Alboko beste lagunari irribarrez begiratu diot, bada-kidalako gauza bera ari garela pentsatzen, eta bota dut: "Euskara ez da desagertuko, eta hala gertatuko balitz ere, guk badaezpada ere euskaraz".

Irribarre konplizearen lagunak esan dit, duela gutxi lagun eszeptikoa nirekin akordatu dela: euskaraz baino gaztelaniaz gehiago egiten duen lagun bati hasieratik bukaerara euskaraz egin dio, temati, baina natural-natural.

Hurrengoan galdetuko diot ea nola sentitu zen abentura polit hartan.

Euskaldunen Hotela
Seaskari dohaintzan

BAIONAKO Euskaldunen Hotela gurasoengandik jaso zuen Claire Haranek. 87 urteko andreak hotela saltzeko asmoa zuen, baina iritziz aldatu du. Hôtel des Basques dohaintzan emango dio Seaskari, besteak beste, haren ideiekin bat egiten duelako.

Pamiela argitaletxeak,
Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin


JUAN ZELAIA

X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaltzeko asmoz.

Saria: 9.000 € · Bidaltzeko epea: irailaren 30a arte

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria),
Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea - 31013 Iruñea
☎ 948 326 535 · soltxate@pamiela.com · Arauak: www.pamiela.com



2010

Kale borroka, su-etena, hauteskundeak

ONERAKO edo txarrerako, hasi berri den ikasturte honetan gertakizun klabeak izango direla antzematen dugu gehienok, batez ere normalizazio politikoaren eta bakegintzaren eremuan. Hainbat arrazoiengatik, ezinbestekoa da orain arteko ildo garrantzitsuak indartzea edo ahultzea. Gura ala ez, denok gaude ETak Bruselako Ekimenari erantzungo dionari begira. Halakotan era guztietako datak eta zurrumurruak zabaltzen dira, gehienak modu interesatuan bideratuak. Bolo-bolo dabil irailean zerbait garrantzitsua gertatuko dela, *El País*-ek eta Vocentoko medioek ETaren su-etena izan daitekeela ere idatzi dute iragan asteburuan.

Ez litzateke harritzekoa. Lehenik, ETak erantzun egin behar dio nazioarteko tamainako ekimenari, hala egingo duela iradoki zuen bere garaian eta berandu baino lehen bada denentzat hobe. Su-etinari baiezkua ezinbestekoa da, beste gauza bat da berau egiaztatzeko batzordearena. Hor zalanza gehiago ditut. Orain arteko ETaren jarrerari begira, logikoa litzakete hori beste urrats batean gauzatzea. Bigarrenik, hilaren 30ean Bruselako Adierazpenak sei hilabete beteko ditu eta hortik aurrera astetik astera

higadura politikoa biziki nozituko du.

Hirugarrenik, hauteskunde giroan gaude eta maiatzera arteko aurrekanpaina luzea hasiko da orain. Azken urte luzeetako agintaldien joerak hala dela erakusten du: urtebete gobernu berria entrenatzen, bi kudeaketa gogorrean eta laugarrena hurrengo hauteskundeei begira.

Inozoa litzateke pentsatzea ezker abertzaleak iaztik hona hartutako erabaki historikoa hauteskontzietan begira dagoela. Baina inozoa da, halaber, ezker abertzaleak udaberriko hauteskundeei muzin egingo diela irudikatzea. Ezker abertzalearentzat izugarri garrantzitsua da euskal gizarteari berriz ere bere indarra botoetan erakustea; eta gainera, ziur dago giro honetan emaitza onak litzakeela. Formulaz asmatu behar, eta hori gaur gaurkoz ez dago bere esku bakarrik.

**Bidaia osotasunean
burutzea da
onuragarriena, baina are
eta funtsezkoagoa bidaia
bera bukatzea, gehiengo
oso zabalak gura duen
moduan**

Estatuak du zeresan garrantzitsue-
na eta Eak eta Aralarrek ere bai.

Askok, gehienok, gehiago nahiko genukeen arren, ezker abertzalea ausart ari da jokatzan. Orain ere hala egin beharko du eta horretarako jauzi berri bat eman. Testuingurua –“bide baketsu eta politikoetatik”– jadanik ezagutzen dugu, orain urrats berriak behar dira. Hauteskundeei begira eta muturrera joz, kondena hitza bera ere samur irentsi dezake “por inperativo legal” ospetsuak edo gisako batek. Iniciativa Internacjonalistak egin zuen. Hitzak, moldeak eta erakusteko moduak ugariak izan daitezke, eta egungo testuinguruak ausart jokatzeko ahalbideratzen dio ezker abertzaleari.

KALE BORROKAREN agerpenean ez dago baikortasun ezpalik, berdin da hauek ezker abertzaleko sektoreek edo esku beltzak egin edo bultzatuak diren. Jarraitzen badute oso eragin kaltegarria izango dute bizi dugun prozesuan. Joera gisa errepikatuz gero, ezker abertzaleak orain arte baino tinkoago hitz egin beharko du. Bidaia osotasunean bukatzea da onuragarriena, baina funtsezkoagoa bidaia bera bukatzea, gehiengo oso zabalak gura duen moduan.



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatu

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Yasuni ITT izan da iraunkortasunaren abuztuko albistea

Ekuadorrek uko egiten dio Yasuni izeneko eskualdean lurpean datzan petrolio ateratzeari eta trukean munduko herrialde aberatsenak ordainduko diote erregaia hustiatuz kobratuko lukeen dirutzaren erdia, horra abuztuaren 2an sinatu zen itunaren mamia. Mugarriztat markatuta geratuko da garapen iraunkorraren historian.

YASUNI PARKE NAZIONALA 9.820 kilometro karratutan hedatzen da, Ekuadorrek ekialdetik Perurekin muga egiten duen eskualdean. Amazoniako paraje honek dauka irabazita bioaniztasunaren munduko saria: hektarea bakoitzean izaki bizidun ezberdin gehiago dago hemen beste inon baino, Europa osoan baino haboro. Abuztuan marka berria ezarri du, ekologiararen eta garapen iraunkorraren aldeko mugimenduen ekinez lortu delarik Yasuni ITT nazioarteko fideikomisoa sortzea.

Ia hiru urteko negoziaketaren ondoren, Ekuadorreko estatuaren izenean María Fernanda Espinosa ministroak sinatu zuen ituna Alemaniako Bonnen, klimaren aldaketaren inguruan burututako biltzarrean. Garapen iraunkorraren alde ari diren erakunde batzuek honela izendatu zuten sinatutakoa: “Ekimenak paradigma aldaketa dakar, baliabide naturalen erabilera arduratsua ezartzen duelako”.

Yasuni ITT akordioak funtsean bermatzen du Ekuadorrek lurpean utziko dituela, erauzi barik, eskualde horretan omen dauden 846 milioi tona petrolio, ordainetan Nazio Batuen Erakundeak PNUD funtsaren bidez kudeatuko duelarik munduko herrialde aberatsek ondoko urteetan emandako 3.600 milioi dolar iristea Ekuadorrera. Hau da,

Ekuadorrek eskuratuko du petrolio hori ustiatuko balu irabaziko lukeenaren erdia. Oraingoan Alemania, Belgika, Italia, Espainia eta Europar Batasunak berretsi dute beren parte hartzea.

Yasuni ITT (hiru hizkiok eremu geografikoa laburbiltzen dute, Ishpingo, Tambococha eta Tiputini ibaien inizialekin) itunak onura handiak ekartzea espero dute sinatzailerek. Hasteko, petrolio hori guztia lurpean geratzeak esan nahi du atmosfera 407 milioi tona karbono gutxiagoz kutsatuko dela; gutxi gora behera urtean Frantziak edo Brasilek isurtzen dutena adina.

Bigarrenik, munduko bioaniztasunik ugariena daukan Yasuniko natur ondasuna babestuko da, nazioartetik iritsitako dirutzak Ekuadorreko beste eskualde batzuetako egoera hobetzen laguntzearekin batera. Hirugarren, baliabidez aberatsa izanik txirotasunean itota bizi den Amazoniako egoera soziala hobetzea espero da. Azkenik, energia kontsumo eta garapen mailako ereduak aldatzen lagundu dezake Yasuni ITT itunak.

Amazoniako jatorrizko jendeentzako ere garrantzia berezia izan behar du. Huaorani etniako jendeak azken hamarkadotan presio handia jasan du oihanera zura, mineral eta petrolio bila iritsitako kanpotarren

Yasuni eskualdea Kito hiriburutik 250 kilometro dago, Ekuadorreko ekialdean. Bere ia 10.000 kilometro koadroak (Nafarroaren azalera) Biosferako Erreserba izendatu zituen UNESCOk 1989an. Oihan tropikalak estaltzen du. Munduan ez da beste txoririk hektareako hemen baino bioaniztasun handiagoa denik, ugaztun, xomorro, anfibio, txori eta landaretan. Huaorani jendea (Wao-rani edo Waodani izenez ere ezagutua) bizi da lurraldeotan, 4.000 inguru, batzuek beren borondatez isolatuak. Yasuni ITT hitzarmenak bermatu beharko litzuke huaoraniarren bizimodua eta eskualdeko oihan joria urte gutxitan ez suntsitzea. “Yasuni” hitzak bertatarien hizkuntzan “lur sakratua” esan nahi omen duenez, Ekuadorreko presidenteorde Lenin Morenok 2010ean gaztelaniaren akademiari eskatu dio onartu dezan “yasunizar” hitza honako esanahiarekin: naturaren defentsan borrokatzea.


esku. Huaoraniaren arteko gutxienez bi tribuk, Tagaeri y Taromenane jendeak, zuriekin harremanik edukitzeari uko egin dio. Itunak horien eskubideak zaintzea biltzen du.

Sinatua, garrantzi handikoa izanagatik ere, marko orokorra besterik ez da. Orain horren zehaztapenak lotzen ahalegintzen dira urteotan Amazoniako bertatiarrekin elkarlanean aritu diren politikari eta intelektualak, hala nola Alberto Acosta eta Fander Falconi diputatu eta ministro ohiak, edo Joan Martinez Alier irakasle katalana, ekologia politikoaren teorialari eta lider ezaguna. Ekuadorreko agintariek, presidentek nabarmenki, ituna sinatu bitartean egindako atzera-aurrerak daramatza erne egotera.

Ekologista infantil ala aitzindari?

Rafael Correa presidentek ezusteko galanta eman zien iazko abenduan Yasuniko itunaren bultzatzaileei. Klimaren aldaketari buruzko Kopenhageko biltzarrean sinatzekotan zen munduaren aurrean, baina ez bakarrik sinatzeari uko egin baizik eta kristorenak eta bi esan zituen sustatzaileen kontra. Hala nola, Ekuadorren aurrerapenaren etsai nagusia ez zela eskuina, “ekologismo infantil” delakoa baizik.

Correaren erasoek behartu zituzten Fander Falconi kanpo arazoeta-



zatzea herrialde txiroei baldintzak ezarri, kolonialismo era berri bat da”, idatzi du Acostak.

Orobat ez zaio Acostari onargaria iruditzen REDD proposamena, oihanen erauztea eta hondatzeagatik isurien gutxitzea alegia. Nazio Batuek sustatzen duten programa honen bidez herrialde aberatsek bultzatzen dute edozein zuhaitz landaketa mota, jatorrizko oihanak eraitsi eta zuhaitz monolabore kaltegarriak ugarituz.

Acostak aipatzen dituen arrisku horiek guztiak bere eginaz ere, askoz baikorrago idatzi du Joan Martinez Alierrek *Sin Permiso* gunean: *En Ecuador la Iniciativa Yasuni ITT se encamina al triunfo*. Martinez Alierrek, hala ere, aitortu du ezin duela oso ondo ulertu zein joko egin duen Correa presidenteak, batean ezker ekologistari egurra emanez eta hurrengoan ituna sinatuz.

Bai azpimarratu du Martinez Alierrek Ekuadorren gai honen inguruan gertatu den gauza bitxia: hemen ez dira indarrak lerrokatu munduan askotan gertatzen den legez ezkertiarak eta ekologistak alde batetik eta eskubia bestetik, Ekuadorren Correa “ekologista infantilen” kontra zaunkaka ari zenean eskubiko komunikabideek defenditu omen zuten Yasuni ITT.

Bada azken eragozpen bat itunarentzako. Alegia, hortik aterako ez duten petrolio konpainiek beste nonbait erauzi dezaketela. Martinez Alier zaharrak baikor izan nahi du honetan ere: Yasunikoa eredu gerta liteke Amazonia osorako, Indian eta Txinan ikatz meategiak dauzkaten eskualdeetarako, Niger deltarako.... ■

ko ministroa eta Alberto Acosta legebiltzarreko presidentea beren karguetatik dimititzera. Ez ziren nornahi, Rafael Correa ezkertiarra agintera eraman zuten Pais mugimenduaren sortzaileak baino. Abendutik hona gauzak aldatu dira, antza, baina Yasuni ITT aurrera atera dadin urte luzez lehiatu direnek motiboak dituzte Correak bihar edo etzi iritzia alda dezakeela beldur izateko.

Alberto Acostak garbi adierazi du hurrengo urratsak zeintzuk izan behar duten. Hasteko, Correa presidenteak publikoki berretsi behar du bera agintean deno ez dela ustiapenik izanen ITT eskualdean. Yasuniren mugen inguruan ere galarazi behar ditu petrolio bilaketak. Ingaruko ustiapenatarako egin diren

errepideek sortu dituzten kalteak gertutik zaindu behar ditu. Isolaturik jarraitzea erabaki duten indigenen eskubideak zorrotz bermatu behar ditu. Yasunik dauzkan beste arriskuak ere, funtsean errepide handiak, basogintza legez kanpokoak, kontrol gabeko kolonizazioa eta turismo ilegala, kontrolpean hartu behar ditu. Eta saiatu mugaz bestaldeko eremuetan Peruk antzeko urratsak egin ditzan.

Bi arrisku nagusi ikusi ditu Acostak saihestu beharrezkoak. Gerta bilitateke Yasuni ITTren letra tikiak idazterakoan nazioarteko finantzazioa lotzea edo karbono isurketen merkatuarekin edo Ekuadorren kanpo zorrarekin. “Karbonoaren merkatua, hau da, isuriak komertzial-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Iñaki Murua

Lanean umorea=umorea lanean

Gure osabak esaten zuen lana zela gogoz-kontra gehien egiten zena. Jatea ere gogoz kontra egiteko ikaragarri nekoso omen eta jan geroko egin beharrek, berriz, ez dute buru hauste makala ematen, bereziki, emakumezkoen artean. Zenbait gizonetarako ere entzun izan diot, oporretan etxetik kanpo igarotako aldiari zegozkion egunkari denak irakurri izana, barruak hustu bitartean. Lasaitu ederra hartuko zuen!

Bada, guk aurten oporren erdiak ospitalean barna eman ditugu. Sugarrak ziren Errusian edota Portugalen bazterrek erretzen, gurean sukarrak sutan gauzkan bitartean. Ez dakigu gerrena, bakterio edo birusa den. Zalantzak itolarria sortzen digu, baina langileen jarrerak, zertarako dauden jakiteak, kontzientziak, umoreak, hurbiltasunak, giroak eta aldarteak, sinestartzen digu egiten ari diren ahaleginean eta fruituak emango dituen itxaropen osoa daukagu. Gu adina mintzen dira nahi bezain emaitza onak eskuratu ezinean eta inpotentzia horren nekea bizkarrean lanean ari beharra, horixe da beharra. Humanoa eta gizatiarra.

Ezagutu nuen morroi asturiar ttiki bat Oñatin, kontrabando garaletan Arabatik astoan garia eta premia zutena gauzez etxeratzen arihua eta aditua, bera lanean hartu zuen familiarentzat. Ez zuen euskaraz hitz egiten ikasi, ezta kontrabandoan ere, baina apaltasunak eta jartzen zuen aurpegitxoak, jendea erakartzeko edo limurtzeko senak sekula ez zuten kontrako bandoan sentiarazi gure artean zelarik. Izaera horrek mantentzen omen zuen zutik eta esna gaua ilunpetako lanean pasa eta goizean goiz jaiki behar izaten zuenean, soro edo belardira lanera gartsu agertzeko, bestela sardinazurrek (*los sardinsarras* bere hitzetan) agudo nabaritzen omen zuten nork pasa zuen gaua pasa behar ez zuena pasatzen. Berak zioenez, negozioan ari zenaren lehen arauak honakoa izan behar zuen: “Bezeroa izorratu egin behar duzu baina pozik utziaz”. Guri ez zigun erakutsi hori nola egiten den edo ez genuen ikasten asmatu.

Zegamako amona salerosa batek ere hala bota omen zion herriko harakinari atea ireki eta bera beste inor ez zegoela ikusita: “Eunon, bakarrik al zare? Ordun geoxeo torkonaiz”. Harrapazak! Behin etxetik irtenez gero, egun hartako zurrumurruak, notiziak edo berriak



DANI BLANCO

jakin gabe itzuli? Baita zera ere! Alde ederretako Gaur Egunak, Telediararioak eta Albistegiak, jasoko zituen hark. Albiste iturri interaktiboa zuen gogoko eta ez antzarrei zaperoa bezala nahi edo nahi ez bultzaka sartutako betiko kontuak. Baina seguru nago, harategia lepo beteta zegoela joanda ere, goxo zerbitzatuko zuela harakinak amona nonzeberri kontu-lapiko hura.


Lazkao Txikik ere “jakintsua izatea joandako lekuan egoten jakitea” zela erantzun zidan behin: gaur Goierriko artzainekin bazkarian eta bihar Leioako klaustroaren otorduan. Ez bat ez bi, jarraian: “Hik ba al dakik zein zen Einstein?”. Eta erantzuteko astirik gabe xehe-tasunak emanik: “Ba Einstein behin batean trenean omen zihoan-eta bilete eske interbentorea. Patrika arakatu eta kale! ‘Lasai, egunero tren berean zabiltza eta beti duzu billetea. Fidatzen naiz’. Handik ordu erdira, tren gaitik behera pasa ondoren, hor ikusten du Einstein liburu, paper, trepetak... denak atera eta bila. ‘Baina, baina, esan dizut bada egunero tren berean eta beti billetearekin zabiltzala eta...’. ‘Ez, ez –Einsteinek– ez naiz zugatik ari, neuk behar dut billetea trenetik non jaitsi jakiteko!’”. Hori da lana egitea hori. Lazkao Txikiri elkarrizketa eskatu nionean, haxe bota zidan: “Bueno, lehene ehun aldiz eindako galderak ingo diak baino...”. Ez nituen hamabost egun ederrak pasa, hari sekula inork egin ez zion galderaren bila. Baina, elkarrizketa osoan hark erakutsi zidan jarrerak merezi zuen.

Egunotan, nola Zumarragako ospitalean hala Donostiakoan jaso dugun jarrera eta irrifar bakoitzak bizia eman digu. Bai Olatz, Felix, Laparra, Aldama, Aitziber, Mertxe... ez dakit badakizuen zuen laneko jarrerak, goxotasunak, irrifar bakoitzak zenbat sendatzen gaituen. Leku arrotzak dira horiek –zorionez– guretzat, eta urduri, estu, larri goazenean, zuentzat husteria baldin bada ere, eman diguzuen tratuak, pazientziak eta hurbiltasun horrek, sendagai hoberenak adina balio digu. Milesker aipatuoi eta gainerako den denoi. Zoragarri ari zarete.

OHARRA: Oraindik ez dakigu nola bukatuko zaigun gure historia, baina ahalegina egiten duenari berea zor zaio eta, ezer seguru esaterik ez dagoen arren, bukaera dena delakoa izanda ere, hau behintzat gogoan izango dugu beti: zuen umorea... lanean. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka, NAFARROA

www.atxaspi.com

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN


Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

3



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorko
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpoon.com

4



Esait

5 kamiseta
opari

Oiartzun GIPUZKOA

www.esait.org

5



AZKEN IRABAZLEAK (2240. Argia)

XARMA

- Karmele Señorena Arzadun (Donostia)

ESAIT

- Arkaitz Gonzalez Arrieta (Galdakao)
- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- M Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)
- Ima Eguen Balanzategi (Elorrio)
- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)

TXURI-URDIN

- Josune Irastorza Aizpeolea (Zegama)
- Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)

BIDAIA HANDIA

- Iñaki Gabilondo Millet (Leintz-Gatzaga)
- Iñaki Irazola Gastañaga (Arrasate)
- Lierni Alberdi (Bergara)
- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
- Eva Ruiz de Galarreta Crespo (Noain - Elortzibar)

GARTXOT

- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)
- Fernando Ramirez Sanchez-Paniagua (Bilbo)

PARTE HARTZEKO

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

Asteburua opari!

Harpidedun,
Harpide berri bat ekartzen baduzu,
ondorengo nekazal etxe edo hotel
batean bi lagunentzako asteburua
oparituko dizugu:

- Atxurra Hotela **BERMEO**
- Zumalabe Hotela **MUTRIKU**
- Gametxo Hotela **IBARRANGELU**
- Oxangoiti Hotela Jauregia **LEKEITIO**
- Ellauri Hotela **ZEANURI**
- Guikuri Nekazal Turismoa **MURUA**
- Atxaspi Hotela **LESAKA**
- Saiaz Hotela **GETARIA**



Eta **harpide berriarentzat** ere
ARGIAko 2Gb-ko MP3 irakurgailu/pendrive
esklusiboa
opari!



943 371 545



gunea@argia.com



www.argia.com/argialagunentzat.php